

kirola  
pilota araban  
kultura  
aguraingo harresi aretoa

# GEU

2005eko urria

154

gaiak

- ✓ manhua txinatar komikia gurean
- ✓ emakumeen aurkako indarkeria > kongresua
- ✓ 'dana', mikel urdangarinen lan berria

urriak 8.  
gasteiz.  
gaztexe  
eguna

# CEGASA

## Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK




Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



# SUMARIOA154



8

**zeregin** 4  
urriko agenda

**iritzia** 7  
gazte asanblada

**geugaia** 8  
gaztetxe eguna

**euskaltasunean** 11  
aitor pz de san roman, txipi

**kaletik / idazleenzutabea** 12  
gaztetxea / edu zelaieta

**orrierdian / idazleenzutabea** 13  
askegi aldizkaria / joxean sagastizabal

**geugaia** 15  
manhua komiki txinatarra gasteiza

**batbitan** 18  
pilota araban. aratz castresana pilotaria

**artetxokoa** 20  
harresi aretoa > agurain

**proposamenak / literatura** 22  
zinea+cd-ak / txabi arnal

**lauhitzetan** 23  
'eskutik euskara' kanpaina / beste

**batbitan** 24  
emakumearen aurkako indarkeria > kongresua

**bidaiak / errezeta** 26  
jon arretxe / sacher-a marrubiekin

**arababixotzian / historiazutabea** 27  
alfredo ibarra / erlantz urtasun

**geu elkarteak & geu aldizkaria** 28  
ikasturte hasiera

**orribatean** 29  
mikel urdangarin: 'dana'

**orribatean** 30  
azkena rock festival: ibai villapun

**historia(steuskara)** 31  
unai gartzia


**umorea** 32  
iñigo sarasola

**orribatean** 34  
euskharan-en 05-06ko eskaintza


gasteiz hiria VI. herri lasterketa  
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



19



24



29



31



11



15

Laguntzaileak:



**1.**  
**AZOKAK**  
> bionekazaritza. produktu eko-  
logikoen azoka.  
**aihotz plaza. goizez**  
> alde zaharreko azoka.  
**goizez**



**2.**  
**KILOMETROAK 05**  
> 'plazara'. aretxabaletako  
arizmendi ikastolaren alde  
**leintz bailara: aramaio, aretxa-  
baleta, arrasate, eskoriatza eta  
leintz gatzaga**  
[www.kilometroak.net](http://www.kilometroak.net)

**6.**  
**IRAKURLE KLUBA**  
> aurtengo ikasturtearen  
hitzaldi-aurrezpena: aingeru  
epaltza. 'gure kontu triste hori'  
**dinamizatzailea: iban zaldua**  
**hikaateneoan (pintore kalea,  
13), 20:00etan**  
geu elkartearen eskutik

**11.**  
**TOPAKETA** > 2000 argia topaketak  
euskal herria 2005-2025: nora eta nola?  
partaideak: joxe jabier iñigo, paula kasares, miren mateo, erramun  
osa. goiuri jauregian, 19:00etan  
**KONTZERTUA** > zea mays  
**bilboko kafe antzokian, 22:00etan. 5 euro. [www.kafeantzokia.com](http://www.kafeantzokia.com)**  
**HARRESI ARETOA.** > ikus. 21. orri  
agurain

**3.**  
**IKASTAROA**  
> astialdiko begirale ikastaroa euskaraz (urritik maiatzera)  
**antolatzailea: euskararen kultur elkarte. matxakolazioa: 3tik 7ra**  
**amaia zentroan (benito perez galdos plaza) kurtsu hasiera: urriak 10**  
**informazioa: 945 288275 - 615790677 / [euskhara@euskalnet.net](mailto:euskhara@euskalnet.net)**  
jo ezazu 34. orrialdera ezagutzeko euskararen elkarteak 2005-2006  
ikasturterako antolatu gainontzeko 'tailerrak euskaraz': musika; mintza-  
praktika; informatika; etxeko elektrizitatea; bertsolaritza; eta bertsoa-  
ren saltsan. aldi berean, umeentzako zinea, jolasak eta tailerrak; liburu-  
tegia; kafe tertulia eta bidaiak euskaraz, zure zain daude.



**12.**  
**KONTZERTUA**  
> mikel urdangarin  
'dana' disko berriaren aurkez-  
pena gasteizen  
azkena aretoan, 22:00etan



**9.**  
**BERTSOLARI TXAPELKETA**  
**NAGUSIA ABIAN**  
> [gasteiz: finalurrekoen 1.  
itzulia. azaroak 13, principal  
antzokian, 17:00etan]  
**antolatzailea: bertsozale elkar-  
tea**



**15.**  
**ANTZERKIA**  
> gasteizko nazioarteko XXX. antzerki jaialdia  
"sonata... segundu batean eta piku". tartean konpainia. euskaraz  
[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)  
**KONTZERTUA**  
> jabier muguruza  
**22.30ean. jabier muguruza: 'abenduak 29' azken lanaren aurkez-  
pena teloneroa: alvie bakarlarri arabarra 2 euro. aldabe gizarte  
etxean antolatzailea: gauekoak**

**16.**  
**LASTERKETA**  
> gasteiz hiria VI. herri-lasterketa / 10 km  
**antolatzaileak: berria egunkaria & bagare euskal toki. dato kalean, 11:00etan. [www.berria.info](http://www.berria.info)**  
**NAFARROA OINEZ**  
> 'oinkez'. iñigo aritza ikastolaren alde. **altsasun**  
**GEU GASTEIZ MENDI-TALDEA (GEUREKIN MENDIRA)**  
> urbanan, santa marina (1030m), eta nafarroa oinez, altsasun  
irteera: lovaina plaza. goizeko 9.00etan. ibilaldi luzea (arratsaldez itzultzekoa)  
arduraduna: bego 945 266 812

**19**  
**KANTATZEN**  
> lagun artean kantari  
**bilboko kafe antzokian, 20:00etan. doako sarrera**  
kantuan egiteko saio irekia gauro eta lehengo piezak berreskuratuz  
eta ostatu giroan anje duhalde eta mikel urbelzen laguntzarekin  
abestuz. honakoa saio berezia izango dugu, hain zuzen uda ostean  
egingo den aurrena.  
[www.kafeantzokia.com](http://www.kafeantzokia.com)

**20.**  
**ERAKUSKETA**  
> 'gerrako haurrak'  
**urriaren 20ra arte**  
**montehermoso kulturunea**

**21**  
**KONTZERTUA**  
> ruper ordorika  
**bilboko kafe antzokian,**  
**20:00etan. 8-10 euro**

**24**  
**'DENON ASTEA / EUSKARA-  
REN ASTEA'**  
> gaia: 'herri kirolak'  
**urriaren 24tik 28ra, goizez**  
**antolatzaileak: gasteizko esko-  
la & ikastola publiko gehienek**

**26.**  
**DANTZALDIA** > urbelzen dantza ganbara  
**bilboko kafe antzokian, 20:00etan. doako sarrera**  
edonork esku har dezakeen dantzen jaia. publiko zabalari euskal dantzak hurbilazteko saioa  
da dantza ganbara. ez da beharrezkoa dantzari trebea izatea. helburua ondo pasatuz euskal  
dantza tradizionalarekin harremanetan hastera da. hori gutxia jua antonio urbelzen zuzen-  
dantzapean, berau folklorista ospetsua eta euskal dantzen ikerle nekazina baitugu.  
**GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA**  
> liburua: harkaitz cano, belarraren ahoa, alberdania 2004.  
**dinamizatzailea: iban zaldua. antolatzailea: geu elkarte**  
**hikaateneoan (pintore kalea 13) 20:00etan (harkaitz cano bertan egongo da)**

**28.**  
**KONTZERTUA**  
> berri txarrak azkena aretoan  
**JAIALDIA** > nazioarteko trikitixa jaialdia  
**bilboko kafe antzokian, 22:00etan . 6-8 euro**  
• totore chessa, luigi lai (sardinia)  
• pomada (katalunia)  
• james hogan (irlanda)  
• imanól arrola eta txetxu urrutia (leh)  
**antolatzailea: bizkaiko trikitixa elkarte**

**30.**  
**ANTZERKIA**  
> gasteizko nazioarteko XXX.  
antzerki jaialdia  
**familiarentzako antzerkia:**  
**"xomorroak". txalo produk-  
zioak**  
**musikala. euskaraz**  
[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

### gauekoak: izenemate bidezko ikastaroak

- perkusioa (euskaraz) > azaroak 4, 11, 18 eta 25. kuota: 4,81 €
- txalaparta > azaroak 5, 12, 19 eta 26. kuota: 4,81 €
- euskal dantzak (euskaraz) > urriak 7, 14, 21 eta 28. kuota: 4,81 €
- panderoa (euskaraz) > urriak 8, 15, 22 eta 29. kuota: 4,81 €

aldabe gizarte etxean, 22.00etatik 0.00etara

izena: aldabe gizarte etxean eman beharko da irailaren 14an hasi eta jarduera hasi arteko epean, 8:30 eta 21:00 orduen artean, astelehenetik igandera, edo internet bidez, udalaren web-orrian: [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org).

informazio gehiago: kulturama

> 945141060

gauekoak@gauekoak.com [www.gauekoak.com](http://www.gauekoak.com)



### bagareren udazkeneko programazioa

> BERTSO SAIDAK

irailaren 22an arabako bertsolari beteteranoek bertso saioa eskaini zuten eta hemendik aurrera hilean behin bertso saio bat eskaini nahi dugu.

> DIAPORAMAK

irailareb 28an, 'marokon zehar euskaraz' diaporama eskaini zen asier otamendiren eskutik. bertan marokoko txokoak zeharkatzeaz gain, tea dastatzeko aukera izan genuen. urrian xabi aranburuk lekukoa hartuko dio eta beste diaporama eskainiko du.

> KILOMETROAK & NAFARROA OINEZ

urtero bezala, bagarek autobusak antolatu ditu kilometroak-era (urriak 2, leintz bailaran) eta nafarroa oinez-era (urriak 16, altsasun) joateko. txartelak bagareko tabernan daude salgai.

> GASTEIZ HIRIA HERRI LASTERKETA


bagarek, berria egunkariarekin batera, VI gasteiz hiria herri lasterketa antolatu du. urriaren 16an lasterketa honek gasteizko kaleak 10 kilometroz zeharkatuko ditu euskara modu aktibo batez bultzatzeko. zozketa ugari egongo dira parte-hartzaileen artean.

> BERTSOTAN BAGARE

azken urteetan bezala, bagarek eta arabako bertsozale elkarteak 'bertsotan bagare' saria antolatuko dute azaro aldean, eta bertan bertsolari gazteek parte hartuko dute. hiru kanporaketa arabako herri desberdinetan jokatu ondoren, finala gasteizen burutuko da.

> ABESTI HERRIKOIAK

urriaren bukaeran tailer bat jarriko da martxan abesti herrikoiak kantatzearen ohitura berreskuratzeko. gure asmoa hilean behin (larunbatetan) biltzea da.



### 'trebiñuko konderriko argazkien bilketa' beka deialdia

eusko ikaskuntzak eta trebiñuko konderriko udalak honako beka deialdia egiten dute. xede-gaia, trebiñuko konderriko argazkiak topatzea, aukeratzea, biltzea eta katalogatzea; publikoak nahiz pribatuak izan daitezkeen argazki hauekin argazki artxibo digital bat sortuko da. iraupena: 9 hilabete. zuzkidura: zenbateko gordina, 5.400 euro (eta 600 euro, bidaia gastuetarako). dokumentazioa aurkezteko epea: urriak 14. tokia: eusko ikaskuntzaren edozein bulegotan. informazioa eta dokumentazioa: [www.eusko-ikaskuntza.org](http://www.eusko-ikaskuntza.org) [udal@eusko-ikaskuntza.org](mailto:udal@eusko-ikaskuntza.org)

### bertsolari txapelketa nagusia

[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)

[www.txapelketanagusia.com](http://www.txapelketanagusia.com)

urriaren 9tik aurrera abian izango da txapelketa nagusia, lekunberrin, lehen azken laurdena jokatu. azaroaren 8an, finalurreko lehen saioa jokatu da eta finala, abenduaren 18an izango da, becen. 12 saio, 38 bertsolari, horrela banatuak: 2 arabar, 10 bizkaitar, 19 gipuzkoar, 3 lapurtar eta 4 nafar. maialen lujanbio eta andoni egaña zuzenean doaz finalera, 2001eko txapelketa nagusiko txapeldunorde eta txapeldun, hurrenez hurren, izateagatik. gainera, aurtengo txapelketa berrikuntzaz beterik dator, kontsulta ezazu txapelketaren web orria!



### 'eguraldia eta meteorologia' ikastaroa

pello zabalak emaniko ikastaroa urritik abendura

egitaraua: atmosfera bere geruzetan. ura. haizea. tenperatura; eguraldiaren aldagaiak. laino eta hodeiak. meteoroa; airearen kutsadura. prezipitazioak. airemasen oreka dinamika. antizikloia...



aldabe gizarte etxean, astelehen eta asteazkenetan, 19:30etik 21:00etara [20 saio]

matrikula: 53,40 / 26,70

antolatzailea: gasteizko udala

informazioa eta izen emateak gasteizko gizarte etxeetan eta [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) web orrian

### 'denon astea' edo 'euskararen astea'

urtero bezala, gasteizko eskola eta ikastola publiko gehienek eskutik, euskararen aldeko astea antolatu dute, hilaren 24tik 28ra. gai zehatz baten inguruan egituratu ohi da, eta aurtengo gaia 'herri kirolak' izango da. kulki taldea (herri kirolak eta jolasak) arituko da astea bideratzen, eta luis elejalde eskola horretarako gunea izango da. goizero-goizero ikastetxe desberdinak handik pasako dira, herri jolas eta kiroletan parte hartzeko.

### ikastaroak eta jarduerak euskaraz

gasteizko udalak, 2005-2006 ikasturterako euskaraz antolatu gizarte etxeetako eta kirol instalazioetako zenbait jarduerarako oraindik plazak daudela jakinarazi du. informazio gehiago: edozein gizarte etxetan edo [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

laguntzailea:

Obra Social

**Caja Vital** **Vital Kutxa**

Gizarte-Ekintza

## EVSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia  
Gasteizko  
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24  
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

## Confecciones Pinedo JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 - GASTEIZ  
Tfnoa.: 945 23 39 90



# ERROTA

## HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ  
Tfnoa. 945 213 390 • Faxa. 945 213 390  
e-mail: errotadental@euskalnet.net

## Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



**ERAMAN ETA JAN**  
"kalitatea eta  
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25  
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza  
GASTEIZ



Sagardotegia

OSTIRALETIK  
IGANDERA IREKITA.  
ASTEAN ZEHAR  
ENKARGUEN BIDEZ.  
ASTEBURUETAN:  
HAMAIKETAOKAK ETA  
MERIENDAK

Arraga auzoa.  
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

**zurbeltz**

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

# Euskadik behar zaitu



# KIDG

## APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

[gazte asanblada]

# GZATTEXE ELIGNA

Baezn beihn, aspaaalidan, exte bta... earbat uztia. Baolregabea. Prezioudna.

25 utre zearmaztan horrlea, hairk eat eugn baetan znebaizt gzaate oukaptzera ainmatu ziern atre.

Eat oukaptuaz earbilera, ahu ad biiztza eamn zioetn. Ia eraabt itxuarldatuta uztu zuetn laenn bitaretz, iharudera soizal-kultuarl-poiltikoen esuktik; aasnbladak eat guapasak trateko, extea tauapdaka ahsi ezn.

Leehnnego uentik biiztza jaoiebrria luazrorako izaetaz arudratu ziern: bhiotz auotgestionatua srotu zuetn. Eodzein taupagailureiko aksea. Isntuizoeak earbiltzen dituzetn bhiotz aritfizialak, haeik gbae hialk gaernaren beludrra zaabltzeko. Natuaralk eamten zuetn tauapda metailko hoirek haargizko natuarlitasuneitk uurnn zeuedla onodtxo zeikten. Pzooi-duak zeuedn. Pzooi iisla, ageirgabea beazin eraignkor eat airrskutsua: Biiztza aahlbiedtzen oemn diugn bhiotz aritfizialareikko meenp-kotausna, moorrntza. Tuapagailueattik eezzik, haeun salemntan airtzen ziern pertsoengandik eer eigten zuetn iehs. Giazrtean zuetn biiztzen-kuedatzaile paeprari zileigtausnik eer ez eamtearren ekiidtzen zuetn harreamna.

Aasnbladetan, ionrk norebre tuapada inopastu gbae bania bakiotzaren bzii-dsoi tixkiez lagunudta, mgua baakrra elkaarlnean eraiiktako bhoitz koelktiboaren gaiatsuna izaink eat muagrik gbae hortaz, bearien arudrak, esaank eta eignak eraabki zituzetn.

“Ez dguu zeun tuapagailueikn biizrauterik nhai. BZII nhai dguu, guere bhoitz porpioaerkin” easn zuetn. Eat tuapagailu-saltzaielak elakrri beigratu eat, mar-mraka bdaa eer, oanrtu eign zuetn. Biiztzen mrekatuak aepnas naabrituko zeun kaletrik laupaobst salemnta guitxagoerngatik. Odno penatstuz greo, proudktu gmaa brrei oos bat mrekatuartzeko auekra poilta iazn ziteeekn: proudktu “suepr-eerrbeldeak” bhoitz “suepr-eerrbldeentzako”. Mrekatuaren bzakide kouprua ugaletzn jaarrituko lkue eat, fienan, deank poizk. “Ez dgao tuapagailuz ingurautta idnar oosz tuapadaka arietzik deun bhoitzik. Biiztzaren aledko boorrka


koelktiboa ad, eat mdou koelktiboan buurtzen ad” easn zuetn. “Mgua zhearaktu dzuue” earn-tzun zeiten.

Euern buura Adle Zaaherrko bhoitzaren bhoitz seemtza zuetn. Hoerrgatik biiz zuetn auozari eigndako eodzein earso beariei zuezn-dua beazla. Ezittasun handieenz aurkezutta eer: Tuapagailu gehaigo eat gehaigoren pormesapean... tuiirstei eat mrekat-al-exte ospednuei biiztza eamteko. Esatkiaren eedrtausna handia iaznik eer: PERI, PERECA eod estal-kieetxetik, brkaa udaleetxetik, aasmtzen duetn eodzein. Ziogrtua iaznagatik eer, auozaren bhoitz biizrik mantenetzn zne. Eat gzaatek agri zuten ez zuetla, inioz, bree kaltean iazn zietkeen eezr eigngo.

Uzti poiltika poiltikari porfeisonalen eksu, koemni zaiuznaz jabeetzko ezjainkugia zraa; ekoonmia ekoonmilari eat enepersarien zainatzpean, ez zeunke proudkzioa antoaltzen aasmtuko; eat hezukntza irakksle eat aidtuen arudrapean; eat aiisaldia mrekatuareenan; seugrtausna idnar aarmtuenean... Zrue kaubz biiz, antoaltu eat earbaiktzeko gai ez zaernaern idia barneartuaztea ad bhoitz aritfizialen saltzaieeln negoizoaren oianrria. Bhoitz indpeendeinte eat auotgestioantu hoenn zien bstee bautzen adibdeak zeakrkien mehautxaren jbae ziern. Nloa manetndu proudktu haeun ezinbsteekotausnaren auma? Nloa justiiifkatu oemn beettzen duetn giazrte fnutzioa?

Ordnea, leega, konpeetntzia, daogenera moladtzea, atzrea beigratzea orania biiztzeko -eerrpiaktzeko... Eod muigmendua, jusitzia, elakrlana, litkeenaren aoplogia, aurrrea beigratzea oraina biiztzeko -goaztzeko... Elakrren kontarkoak diern ib mnduu auriktzen diutgu. Baetraezinak izaink eer, kontaresankroki, elakrrekin bzii deirnak bania. Hlaa giazrtean orookrrean, nloa guatko bakioztaren barrenan.

Bgiarrenaren aledko hauuta dguu guk eigna. Bdie koarpialtsua, zeinaen oukpazioa -bearien munduaerikko gnue akseen srroera- eat auotgestioa -gnue horeik biiztzeko mdoua- oinarrizikoak ziazkgun. >> (8 orr.)



**OUKAP-  
ZIOA-AUOT-  
GESTOIA**  
seank diostu  
Adle Zaahrra  
biizrik!!

>> Batreagaitzak iaznik, grue bhiozta tauapda porpiorik gbae uzetko aahleginak etnegabekoak iazn dria. Urteebtera, eat zorzti uretra, eat ahmairura... eat ahmaazppi eat greo eer. Baztutan zzuenean eraostuz, iirrbartsugao beesttan. Bania, Rupeerk dieon moudan, bearndu dabilzta...

Auriktu zuetna, auriktu duetna eta auriktuko duetna zrea batia: baedla, oarin eat heemn, extetxo bat... sorigndua. Baloreudna. Prezioagbea.

Zeeozr iaksi badguu utertoan Gzatte-xea eat gziarteraen arkteo ahrremaentik, hatru-eamn hnotean konpliidadze izuktu beerzi bta daogela ad. Loigkatik eat ideologieattik haartago donaa, aurreiritzein gainteik eat agerikaoren azptiik aazltezn dnea. Bakiotzraen barreenra, bhioztera oj eat betran aurikutko dtiguu diunatsun, justiiiza, bernidtsaun, aniztsaun, pzotsaun nahaik. Nahaik eat bherraak. Bakiotzak azalreago eod skaonago dituugnak, osautago eod mtuilautagoak biana btei, btei, orh duadenak.

Horreagtik eraosak, geuzrrak eod eigusetlak trateko eer, elakrtzen gatuien hairtxoa sedno mnatendu da. Horreagtik iraukrri aahl iazn dzuu tsetu ahu, anza logkiarik gaeba, anza ordneurik gaeba. Beerzkoak zazikizun naheii eat bherraei, ssutraiei zueztzen zaeilako. Oukpazioa eat augestitooa hor nnobait darmaatza-zualko.

[Horreagtik, ib poiltikari jrrai diutgunean tsetuaren aurraen (enprseairen, poiltzien, miiltar etab-en laugntza baiemnduta), aahelgin aurpeigkera seroia jrrai dtue leehnik, izedri ohtza eotrri ziae onodren, hasrree-bziia azeknerako. Ez baituzten eeze ulretzen. Zoezer atzeamten zuetlako adli beeran bania. Eat gaarrixika ahsi dria bearrien oentik itrenda: Bnia bnia, zre ad ahu!? Ohnek ez ud loigkarik! Ohnek ez ud eeze easten! Nno dadue srraera, loakrria eat sinetsia!? Nno mzeu naugsia!? Nno aatl eat azpaitalak!? Ze seroitason kalse ad ahu!? Hoantx Ltreen Eerrt Akdaemia! HOANTX ORDNEA!!

HOANTX LGEEA!!"]

Giaxjoak. Giaxjo airrskutsuak.  
Zu, gonibadtuta zadue. Haeik, ez. •

## GAZTETXE EGUNA. URRIAK 8

# Gasteiztik, oukapzio

Gaztetxeak jai giroaz eta aldarrikapenez jantziko du Gasteizko Alde Zaharra urriaren 8an. Gaztetxea kalera aterako da larunbat horretan 17 urtetako ibilbide luze eta oparoaren zeregina, funtzionamendua eta historia hiri osoa eta Euskal Herriari helaraziz.

[josune v. de mendizabal]

Alde Zaharreko kaleak musika, literatura eta umeentzako jolasak, besteak beste, izango dituzten guneetan banatuko dira. Gaztetxeak berak, bai eta gune autogestionatu honekin urtetan harremana izan duten gizarte mugimenduek eta norbanakoek ere, Euskal Herri mailako deialdia luzatu dute hilaren 8an nahi beste lagun Gasteiza hurbil daitezten, Alde Zaharra Gaztetxe handi bat bilakatze aldera.

Gasteizko hiriarentzat, bertako herri mugimenduentzat eta hainbat norbanakorentzat ere erreferentzia tresna bilakatu da Gaztetxea 17 urteren buruan. Horregatik, hain justu ere, eta gaur egun Udalak desagerrarazi nahi duen mehatxupean jarraitzen duela ahaztu gabe, "Gure etxea", denon etxea alegia, defendatzeko eta babesa emateko, larogeta hamar bat gizarte eta kultur mugimenduk, literatur eta musika munduko ordezkariak eta hainbat elkarteak egun berezia prestatu dute hilaren 8an Gasteizko Alde Zaharrean. Izan ere, Gaztetxea biltzeko, aldarrikapenerako, lane-


rako eta festarako gunea izan da urtetan, guztion eskura egon den autogestionaturiko txokoa.

**GUZTIONTZAKO JAI EGITARAU ZABALA  
ETA PARTE-HARTZAILEA**

Egun osoko jaia izango da urriaren 8koa. Toti Martinez de Lezeak eta Kirmen Uribe bideratutako Alde Zaharren berri emango duen bisita gidatu batek emango dio hasiera egunari, eta hortik aurrera, gune bakoitzaren egun osoko programazioari hasiera emango zaio. Jaia eta ondo pasatzea, eta inguratzen gaituen errealitatearekiko ardurara, osagarri egitea da asmoa: Kale animazioa, kontzertuak, antzerkia, dantza, irakurketak..., baina baita kolektiboen materiala, erakusketak, ekitaldiak, eztabaidak edo hitzaldiak ere. Osagarri egin ere jende ezagun eta erreferentzialaren partaidetza, ezezagun eta hasten ari direnenarekin. Zenbait ekitaldi eta partaidetza aipatzearen, ahor: TMEOko komikilariak, Mikel Valverde, herri-bazkaria, dantza garaikidea, Sebastopoleko Ti-



# & autogestoiaren oihartzuna



tiriteroak, tortilla txapelketa, txokolatada, pailazoak, Betagarri, Sorkun, Txan Magoa, Ruper Ordorika, Mikel Urdangarin, eta azken mementoan jakingo diren sorpresa ugari... Urtean zehar Gaztetxean gertatzen dena, finean.

## 17 URTETAN BELAUNALDIZ BELAUNALDI AURRERA EGINEZ

Hamazazpi urtetako historia eskas labur daiteke hiru orrialdetan, hala ere ardatz nagusienetatik ibiliz, honatz his-

toria ñimiñoa: Gasteizko Gaztetxea 1988 urtean jaio zen, hiriko zenbait gaztek beraien ardurak eta nahiak modu antolatatu batean adierazteko espazio baten beharra sentitu eta hainbat hilabetetan hau aldarrikatzen ibili eta gero. Hamazazpi urte pasa dira harrezkero. Gizartea, Gaztetxeko gazteen ardurak eta pentsamoldeak, ekiteko moduak... dena aldatuz joan da. Gaztetxearen ibilbidean barrena uneoro mantendu diren ezaugarri oinarritzkoak, okupazioaren defentsa, autogestioa eta asanbladaren >>

zenbait ekitaldi eta partaidetza aipatzearen, ahor: tmeoko komikilariak, mikel valverde, herribazkaria, dantza garaikidea, sebastopoleko titiriteroak, tortilla txapelketa, txokolatada, pailazoak, betagarri, sorkun, txan magoa, ruper ordorika, mikel urdangarin, eta azken mementoan jakingo diren sorpresa ugari... urtean zehar gaztetxean gertatzen dena, finean.



>> ezinbestekotasunaren aldarria izan direla esan daiteke. Muinoko Etxeak denbora horretan erdietsitako beste lorpen garrantzitsua hiriko herri mugimenduentzako tresna erreferentziala bilakatzea izan da. Erreferentzia eta bilgunea, hainbat gunetan elkarlanerako muga handiak dituzten kolektibo edo esparru ezberdin askok bat egiten baitute Gaztetxean.

Erasoak aipatzen hasita, egoera desberdinak bizi izan ditu gazteen etxeak. Hasiera bateko ezegonkortasun eta tentsioak, Udalarekin izandako elkarriketa uneak..., eta nabarmenena, 2001 urte-tik aurrera PPK gidatutako eraso ildo jarraia. Hala nola, Gaztetxea eraisteko "argudio" esplizitu gisa (inplizitua ordea, gazte asanbladaren txostenak zehaztu bezala, "gustuko ez dudalako botako

dut"), hiriko Bosgarren Dorre Miradorea eraiki behar zela esaten hasi ziren, turistentzako apeua eta ondorioz auzoarentzako onura ekarriko zuena. Auzoak, kolektiboek, Udal oposizioak berak eta abarrek hori aitzakia baino ez zela, eta proiektuak ez hañkarik ez bururik ez zuela esan zioten alkateari. Ostean, Alde Zaharreko biztanleentzako aparkalekua eraikitzeko aitzakiara jo zuen Gasteizko alkateak. Gaztetxearen defentsan hamar mila pertsona inguru bildu zituen manifestazioa izan zen garaiko erantzuna. Aipatu prozesu guztia, modu zuzenean izan beharrean, prentsaren bitartez eza-gutu zuten bertako kideek. Hemezortzi urte beteko dituelakoan... goza dezagun hilaren 8ko Gaztetxe Eguna. Bejondeigula. •

# Aitor Pz. de San Roman, 'Txipi':

euskaltasunean



*"Nire bizioa Virginia da,  
nire emaztea"*

[arg.: edorta sanz]

Aitor Perez de San Roman Fernandez de Larrinoa (ezin daiteke esan arabarra ez denik) Txipi goitizenez ezagunagoa den 35 urteko gasteiztarra dugu. Alaia, irribarretsua eta mendizale amorratua da Ursulinasen haur hezkuntzako irakaslea den mutil hau. Menditik gertuago egoteko Araian bizi da egun bere familiarekin (bi urteko alabatxoa dauka eta beste ume baten zain daude bera eta Virginia bere emaztea, pozez beteta).

- "Nahi izanez gero euskaraz bizi daiteke Gasteizen"
- Herria hiria baino nahiago, Araia kasu honetan
- Gauza askori dio beldur, baina nahiago du ez pentsatu

[josune v. de mendizabal]

**-Biziorik?**

Virginia.

**-Bertuterik?**

Jatorra naizela... bertuterik aipatuz gero akatsik ere aipatu beharko da, ezta?...

**-Hortaz, akatsik?**

Harroputza naizela.

**-Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Gezurrak.

**-GEU aldizkaria eta Elkartea ezagutzen al dituzu?**

Bai aspaldian, baina ez naiz bazkide (gero emango dizkizut datuak). Anaiak jasotzen du eta berean irakurri izan dut aldizkaria.

**-Egunkari bat?**

Berria eta El Pais.

**-Telebista saiorik?**

'Aquí no hay quien viva.'

**-Jaki gustukorik?**

Makailua edozein saltsarekin.

**-Beldurrik?**

Bai, gauza askori, baina nahiago dut ez pentsatu.

**-Oporrak non eta zertarako?**

Venezuela ezagutzeko tokia da, denetarik baitauka, hondartza, mendia eta oihana..., zertarako?, familiarekin gozatzeko eta familiarekin egoteko.

**-Nora ez zinateke joango?**

Leku guztiek dute xarmarik.

**-Egin duzun azken mendi irteera?**

Zailtasun handienekoa iazko Gashembrum, eta azken irteera duela 15 egun egindako Petit Astazou, Gavarnin.

**-Liburu bat?**

Euskaraz "Babilonia" eta gazteleraz "La memoria del fuego", Eduardo Galeanorena.

**-Kolare bat?**

Urdina.

**-Gorputzeko atalik politena?**

Ahoa.

**-Musika talderik gogokoena?**

Rock & roll-a eta reggae-a, baina azkenaldi honetan Bebo Valdez eta El Cigalaren 'Lágrimas negras' diskoa entzuten dut sarri.

**-Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?**

Bai, zenbait kasutan eta nahi izanez gero.

**-Zer eskatzen du herriak?**

Lehen justizia eta orain gero eta gehiago, eta tamalez, ondo bizitzea.

**-Bota dizuten azken lorea?**

Nahiz eta egia izan ez, esan didate "hori bai alaba polita, aitaren antza dauka", eta gezur hutsa da, amaren antza baitauka.

**-Negar egin duzun azken aldia?**

Nahiko negar egiten dut baina... agian filmen batekin edo...

**-Eta barrea?**

Gaur goizean bertan nire alabarekin.

**-Hiria edo herria?**

Herria, noski.

**-Hortaz, Gasteizko gaua zein izan duzu?**

Jazzaldian, eta Araian aldiz, Umore Antzerki Jaialdian.

**-Eta eguna, non eta zertarako?**

Araian, menditik paseatzeko.

## "Gaztetxea, denon etxea"

17 urte autogestionatzen, elkartzen, sortzen, ekitaldiak ematen, guneak eraikitzen, harremanak estutzen... Udalak aldiz, erraietatik moztu nahi du bere Alde Zaharrerako plan berriko burutasun bezala. Urriaren 8an Gasteizko Gaztetxearen aldeko eguna antolatu da eta honen harira eta erabaki honen aurrean hausnarketa planteatzea zilegi dela adierazteko, kalera atera gara bizilagunei itauntzera.

[maite lekue eta saioa fdz. de arangiz]

1. Zein da zure ustez gaztetxeak Gasteizen betetzen duen funtzioa?
2. Zer iruditzen zaizu gaztetxea botatzeko alkateak hartu duen erabakia?
3. Urriaren 8an Gaztetxearen eguna antolatu da Gasteizen. Parte hartzeko asmorik al duzu?



**Ana Armendia, funtzionarioa**

1. Udalak eskaintzen ez dituen hainbat alternatiba eskaintzera iristen dena da Gasteizko Gaztetxea.
2. Gaztetxea ezin da bota. Nik ez dakit Gaztetxeak hemen izan behar duen ala ez, eraikinarekin arazoak dauden ala ez, baina Gasteizen gaztetxe bat izan behar da.
3. Segur aski ez, astirik ez daukadalako baina egun horren alde agertzen naiz.

**Irene Lezameta, ikaslea**

1. Gaztetxea da, izenak esaten duen moduan gazteok biltzeko lekua. Gazteok bildu nahi dugunerako lekua. Musika jotzeko, kontzertuak ikusteko zein lagunekin zerbait hartzeko lekua da.
2. Txarto, gazteok horrelako leku bat behar dugulako, egoteko eta antolatzeko.
3. Bai, nire herriko jaietan da juxtu...kar-kar..., baina Gasteizen banago, bai, noski.



**Diego Carbajo, Soziologian lizentziatua**

1. Instituzionalizatutako aisialdiaren kontrako espazio alternatiboa.
2. Oso gaizki iruditzen zait, okupatutako espazio bat da, gazteek egin eta eraikitako errealitate bat badelako eta funtzio sozial batzuk betetzen dituelako.
3. Bai, parte hartzeko asmoa dut eta ahal den heinean horrelako mugimenduetan nire ahaleginak jarriko ditut.

## MIÑOTIK AGADIRRERA ZADORRAN BARRENA

[edu zelaieta]



Orain dela hilabete pare bat etxez aldatu ginen –edo pisuz zehaztu beharko nuke–. Alde zaharreko zapatik alde zaharreko pintora egin dugu aldaira. Oinez, lehengo ataritik oraingora lauzpabost minutu izango ditugu, gehienez. Hala ere, mundua aldatu dela dirudi. Beste hizkuntza batzuk aditzen ditugu orain. Beste usain batzuk sumatzen ditugu orain. Egin kontu, oraingo etxeak hiru solairu ditu; solairu bakoitzak bi esku; eta gu gara euskaraz egiten duten bizilagun bakarrak. Gu gara gaztelaniaz traba nabarmenik gabe mintzatzen diren bakarrak. Gainerako auzokideak, azken urteotan Gasteizera etorritako marokoarrak dira. Marokoarrak dira, halaber, atariaren alde banatan dauden kebab eta lokutorioaren jabeak.

Gure ama galiziarra da. Beste hainbestek egin bezalaxe, 60ko hamarkadaren hasieran etorri zen Gasteizera. Lana topatu, bertan bizi eta familia izan. Ezer berezirik ez. Gurasoen etxearen ondoan orain dela gutxi arte Bar Miño egon da. Baita Bar Orense eta El Centro Gallego ere. Orain, berriz, Orense da dirauen bakarra. Eta dagoeneko, ez da Bar. Jatetxea, baizik. El Centro Gallego zegoen tokian Zampa izeneko bokateria dago. Bar Miño zegoen tokian Cafe Agadir jarri berri dute.

Inmigrazioa ez da gauza berria. Denok ondotxo dakigu beti egon direla halako jendeen mugimenduak. Hala ere, iruditzen zait Gasteizen bizitzeko ditugun garai berrien sinbolo ezin hobekak direla. Bertako errealitateari neurri egokia hartzen dioten testigantzak direla. Egia da: zauden tokian zaudela ere, beti datoz garai berriak, nahiz eta nekeak eta pozak antzekoak izaten diren. Egia da: erronka ederra dugu garai berrietan. Ea gure seme-alabek arrazoia ematen diguten 30-40 urteren buruan. •

# ASKEGI, Iruña Okako kultur aldizkaria

[josune v. de mendizabal]

Badaia mendilerroan zegoen txabola baten izena hartu du Iruña Okako ondare kulturala ikasi, sustatu eta ikertzeko asmoz sortu berri den Askegi aldizkariak.

Arabako eremu honetan izan diren istorioek eta gertaerek osatzen dute kaleratu berri den urtekari honen lehen alea. Horretarako adituek ez ezik, herrietako bizilagunek ere euren istorio, gertaera eta oroitzapenekin ahalbidetu dute aldizkari honen argitalpena.

Askegi bordaren izena hartu izanak izaera sinbolikoa daukela dio Vicente Arrizabalaga aldizkari idazle eta batek, "bertako jendea eta artzainak borda horretan biltzen ziren guztion arteko erabakiak hartzeko". Eta horrela hain justu ere, bideratu dute 124 orrialde eta kolorez eginiko argitalpen berri hau. "Guztira 30 lagunek osatutako taldeak atera du aurrera, hemen inor ez dago bestearen gainera -azpimarratu du Vicentek-. Norberak gaia proposatu eta jorratzen du. Ondorioz, artikulu batzuk zabalkundeak dira, beste batzuk dokumentatuak daude, eta badira ere ahoz aho ezagutu direnak".

Ez da lan makala izan aldizkaria aurrera ateratzea, Vicentek azaldu duenez, "hau aldizkari irekia da edonork idatzi dezake, bete beharreko baldintza bakarra da bertan idazten denak Iruña Oka osatzen duten bost herrietako batekin harremana izatea. Horretan arazorik ez dugu izan ordea, baina bai finantziarioarekin". Arabako Foru Aldundiak lagundutako egitasmoa da Askegi. Ideia

Euskerazko Eandarak  
**Euskerazko Itzaldiyak**

Gier: Zoriko Ama Maria  
Luzenak, gureak



"Euskerazko Itzaldiyak" es la obra más reciente de José Iturrigarain.



El libro 'Euskerazko Itzaldiyak' es la obra más reciente de José Iturrigarain.



2002. urtean sortu bazen ere azken bi hilabeteetan ikusi du argia aldizkariak. "Finantziarioa izan da arazo handiena neurri batean, Foru Aldundiak dirua eman digu lehen zenbaki hau argitaratzeko. Bigarrena, aldiz, gure kabuz atera behar dugu eta horretan gabilta, ea 2006ko urrirako kalean den. Behin Foru Aldundiaren diruz lagunduta egonik ezin baititugu aleak salgai jarri eta, ondorioz, ez dugu dirua lortzerik bigarren alerako".

Aldizkariak, Iruña Okako bizilagun mota ezberdin askoren laguntza jaso du. Ho-

rietatik hainbat bere bizipenekin ondare kulturala ezagutarazten lagundu diotenak dira. Hala nola, herrietako adintsuenek XX. mendearen erdialdean haurdunaldiak nola eta zein sinesmenekin bizitzen ziren jasotzen da, baita esaera zaharren zerrenda bat ere irakur daiteke edota Iruña Okaren inguruan sortutako kondaira batzuk. Toponimia, herrietako jaiak, eraikinak eta pertsonaiei buruzko informazioa biltzen da ale honetan. "Bertako jende adintsuari esker gure historia osatzen duten zenbait pasarte berreskuratzen eta paperean gorde ahal izan ditugu, bestela eurekin batera desagertuko lirateke".

## THE SHOOTING

[joxean sagastizabal]



Bai, bai, hasi orduko eman dizuet pedante hutsa naizela pentsatzeko arrazoia, "Zergatik jarri ote du molo honek ingelesez izenburua?", baina zilegi bekit zergatik azaltzea.

Uda honetan zehar "shooting" batean ibili naiz, erran nahi baita, pelikula baten filmaketan. Lagun irlandar bati galdetu nion ea nola esaten zen filmaketa ingelesez, eta...

Zinemagintzaren tripatxoak ezagutzeko parada eduki dut, hortaz; eta? Ze berri? Ze ikasi dut, ezer badut? Ba... bi hitzetan laburbil daitekeela filmatzea zer den: itxoin eta errepikatu.

Gutako edozeini filmaketa bat nolakoa den galdetuz gero, ueste dut denok garela kontua irudikatzen gai: "argiak, kamerak, aktoreak, efektuak... eta hori dena zuzentzen, zuzendaria!"

Oso ondo, bai jaun-andreok horixe da, baina... aktore batek orduak (bai, orduak) pasa ditzake txanda noiz iritsiko; aktore batek orduak (bai, 60 minutu, eta beste 60, eta beste 60...) pasa ditzake zain makillatzaileek harekikoak buka ditzaten; lan-talde oso-oso batek (berrogei bat pertsona) orduak eta egunak pasa ditzake zaparrada noiz atertuko gure inguru ez-eurigitxitsu hauean...

Eta errepikapenak? Bai, noski, -esango duzue-, eszena gaizki burutuz gero... ba ez portzieto. Eman dezagun eszena batean Ugutz, Urtsa eta Harritokieta (a ze euskal izen jatorrak, e?) aktoreak ari direla; lehenengo toma orokorra egiten da... (itxoin, hiztegian begiratu behar dut "toma" nola arraio den... "hartze, hartualdi" omen, eta ¡toma!, berriz, hartzak/n!; bueno, ba nik hartzank erabiliko dut); lehenengo hartzank orokorra egiten da, hirurak agertzen direlarik, Ugutz, Urtsa eta Harritokieta elkarri kristorenak esaten; eszena orokor hori ezkerretik, eskuinetik, plano, kontraplano eta eztaikitzer; gero "laburrak" egiten dira, alegia, Ugutz, Urtsa eta Harritokieta daude baina kamerak banan banan filmatuko ditu, lehen esandako horixe errepikatzen...

GEUkoek 1.500 karaktere esan didate eta denak gastatu ditut honezkero; galderatxo bat, halere: zergatik dauzkate euskarazko filmek bina zuzendari? ('Aupa Etxebeste', Asier Altuna eta Telmo Esnal; 'Kutsidazu...', Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues).•

## ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

### GARMENDIA HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



### XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97



**gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak**

## IRYSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

**ESPEZIALITATEA:**

**Patata tortila · Otartekoak**

## Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztekoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

## ARTEPAN

Artisau



Okindegia eta  
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

## LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,

pintxoak,

kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

## DaLvez

argitarazleak

www.dalvez.com

945.245.269 - 652.776.509

GASTEIZ



Eskaintza hau 05/09/01etik 05/10/31ra arte izango da: Fashion, Bergamo, Giulio Tabacchi, Amichi, Pepe Jeans, El Caballo eta Mis Lupos markako armazoiak eta lente zuri, gogoritu eta monofokalak (+- 4 esf. +- 2 zil.) hartzen dituz barne.

ZERBITZU  
OPTIKOETAN  
1a

## MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

## MULTIOPTICAS

Andre Maria plaza  
Olagibel, 33  
(anbulategi aurrean)

**GASTEIZ**



ICED LANDS ARGITALETXEA

# Manhua, Txinatik datorren komikia gure artean

Gasteizko hiru gaztek Manhua deituriko komiki txinatarrak argitaratzeko ICED LANDS editoriala eratu dute. Proiektu berritzailea eta arriskutsua dela diote, komiki mota hau zeharo ezezaguna delako gure artean. Halarik ere, Manhuaren istorioak, koloredun marrazkiak eta pertsonaiak zaletasuna sortuko dutelakoan daude.

## [saioa fdz. de arangiz]

Yosu Villena, Raul Arkaia eta Iker Andrade lagun gasteiztarren nahia betidanik berezko negozioa sortzea izan da. Erraza ez bada ere, euren jomuga errealitate bilakatzeko zorian dago, izan ere, ICED LANDS argitaletxea martxan jarriko dute laster. Editorialaren lana ez da liburuak argitaratzera mugatuko, zeregin nagusia Manhua izeneko komiki txinatarrak gure artean zabaltzea izango delako. "Europar ezezaguna den komikia dugu Manhua; Japoniako manga komikien antzekoa da, baina koloreduna eta xehetasun handikoa, estilo desberdina, alegia", azaldu du Yosu komikizaleak.

Asia aldean komikien kultura arras hedatuta dago eta milaka dira argitaratzen diren aleak, hala ere, hasieran 2 komiki bakarrik argitaratuko ditu argitaletxe gasteiztarrek; batetik, Oriental Heroes, Tigre eta Dragoi famatuak, Txinan gehien saltzen den bilduma, eta bestetik, Weapons of the Gods. "Asian arrakastatsuak dira oso, hemen Mortadelo eta Filemon bezala. Astekariak dira eta milaka ale argitaratu dira jadanik", diote Iker eta Yosu gazteek. Alabaina, hauetako lau ale biltzen dituen hilabetekaria argitaratzea da euren asmoa, printzipioz izenburu bakoitzeko 5.000 ale kaleratuz.

Ildo horretan, hiru lagunena lana ekialdetik datozen komikiak gure hizkuntza eta ohituretara moldatzean datza. "Materiala CD-rom batean bidaliko digute Txinatik eta itzulpena egin beharko dugu; ingelesez bada, guk egingo dugu, txineraz bada, ordea, interpretazio-zerbitzua kontratatuko dugu", diosku Yosuk. Ondorengo urratsa komikia banatzea izango da. Banaketa estatu mailara mugatuko da eta bertan sabakanatuta dauden 300 liburudenda espezializatueta egongo dira salgai komikiak, baita azalera handi gutxi batzuetan ere. Gasteizen, esaterako, Zuloa eta Ronin-en aurkituko dituzue.

Halarik ere, hauxe ez da izango komikiak eskuratzeko bide bakarra, jada abian

dagoen web orriak ([www.icedlands.com](http://www.icedlands.com)) estatu espainolaren mugatik at komikiak zabaltzeko aukera eman die; "AE-Betan zoratuta dauden komiki hauekin eta sarearen bidez Amerika osoan saltzeko aukera izango dugu", azaldu dute.

#### IDEIAREN SORBURU, YOSUREN ZALETASUNA

Arraroa bada ere, enpresa berria osatzen duten hiru lagunak ez dira komiki-



Iker Andrade eta Yosu Villena

## ZER DA MANHUA?

Kondairatxoak eta komikiak izendatzeko hitza dugu manhua. Eskuz egina, teknika bereziak erabiltzen ditu, eta manga komikiak ez bezala, kolorez beterik daude. 70. hamarkadan agertu zen Txinan, baina liberalizazioa eta bizimodua dela eta Hong Kong eta Taiwan-en argitaratu da batez ere.

Komiki hauek txinatarren bizimoduari eta filosofiari estuki lotuta daude eta europar kultura modernoa eta Txinako kultura tradizionala nahasten dituzte.

Bertan jorratzen diren istorioak konplexuak dira eta pertsonaiak landuak. Akzioa, umorea eta pertsonaia interesgarriak nahasten dituzte.

Asian arrakastatsuak dira oso, astero ale berriak argitaratzen dira-eta.





zale amorratuak, Yosu izan ezik. Raulek eta Ikerrek, ordea, bestelako ezaugarri errentagarriak ikusi zioten egitasmoari. Yosuk argitu bezala, "txikitatik irakurri ohi ditut komikiak. Kaleratuko dugun bilduma 1996. urtean ezagutu nuen, baina tamalez argitaratzeari utzi zioten, eta hainbat urte geroago AEBetan agertu eta sarearen bidez erosi nuen berriz ere. Han izugarrizko iskanbila sortu zen eta horregatik manhua komikiak argitaratzeko ideia bururatu zitzaidan". Horrez gain, proiektua egitate bihurtzeko asmoa interneteko foru batean zabaldu zutenean, jendea berehala interesatu zela diote, eta ondorioz proiektua garatu zuten. Arabari dagokionez, manhua ezezaguna dela dio Yosuk, alabaina, "nolabaiteko kuriositatea sumatu dugu komiki honen inguruan eta baikor agertzen gara".

#### KONTRATU GOGORRA

Zoritzarrez, euren lehenengo oztopoa aurkitu dute bidean, zehazki, Jade Dynasty Group Limited elkarrekin txinatarrak ezarri nahi dien kontratu gogorra.



Jackie Chan aktore eta ekoizle famatuaren konpainia honen baitan dagoen King Comics, komikien sortzaile den heinean, editorialaren hornitzailea izango da, izan ere, horren truke eskatzen duena gehiegizkoa dela uste dute gasteiztarrek. "Irabaziak lortu baino lehen dirutza bat eskatzen digute, hau da, urte osoan ustez irabaziko dugunaren %10 eta oso arrakatsua da hori. Hala ere, proiektuan sinesen dugu eta horregatik laguntzaren bila gaude, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Beraz, edonor interesatuta badago gurekin hitz egin dezake", azaldu du Ikerrek. •

#### Yosu Villena

Informatikari lanbidez, komikizale amorratua dugu Yosu. Berez, 12 urte zituenetik gustuko ditu komikiak eta bildumagilea da geroztik. Marrazkilaria da aisialdian eta noizbehinka ere idaztea gustatzen zaio. Horrez gain, fantasiakoa da bere genero favoritoa. Esfortzu handia egin ostean, bere pasioa lanbide bihurtzea lortu du, izan ere, ICED LANDS argialetxearen sustatzailea izateaz gain, izen bereko web orriaren sortzailea da. Bere eginkizuna, batez ere, Txinatik bidalitako komikiak itzultzea eta moldatzea izango da.

#### Raul Arkaia

Kazetaria izan arren, ez zuen bitan pentsatu Yosuk bere ideia plazaratu zionean. Hori dela eta, gero eta gehiago atsegin ditu komikiak. Kazetaritzaren munduan duen eskarmentua aprobetxatuz, komunikazio lanak gauzatuko ditu argialetxean.

#### Iker Andrade


Egun, anbulantzia-laguntzailea den gazte hau ICED LANDSeko kontularia izango da. "Niri ez zaizkit komikiak bereziki gustatzen, hala ere, Yosu ez bezala, negozioaz dudak ikuspegia errealistagoa da eta benetan aurrera ateratu daitekeela uste dut", azaldu du. Bere zaletasunen artean, arrisku kirolak, motorrak, bidaia eta musika daude.

# ARABAKO EUSKAL PILOTA ELKARTEA, ARABAKO PILOTARIEN HARROBI



[arg.: pilotaraba.com]

Arabako Euskal Pilota Elkarteak 50 urte baino gehiago daramatza euskal kirol honen alde lan egiten. Esfortzuak merezi izan du, azken boladan Arabako klub eta pilotalekuen kopuruak eta zaletasunak gora egin dutelako.



## zenbait datu

Arabako Euskal Pilota Elkarteak bere gain ia 100 pilotaleku inguru kudeatzen ditu, hauetatik 10 hiriburuan daude eta gainontzeko 80ak, aldiz, probintzian zehar banatuta. Gasteizen esaterako, Ogeta pilotalekua nabarmentzen da, handiena eta ospetsuena izaki 2.200 pertsona baino gehiago biltzeko gaitasuna duelako. Pilota klubei dagokienez, berriz, 30 dira gure lurraldean ditugunak; 9 Gasteizen eta 21 Araban.

informazio gehiago:  
[www.pilotaraba.com](http://www.pilotaraba.com)

- 1929a izango da kirol honen ezarpenerako lehen urrats erabakigarria eman zen urtea
- Arabako Euskal Pilota Elkarteak 1941. urtean sortu zen Gasteizen
- Arabako Euskal Pilota Elkarteak bere gain ia 100 pilotaleku inguru kudeatzen ditu

## [maite lekue]

### IRAGANETIK GAUR EGUNERA

Munduaren historian zehar, hainbat zibilizaziok era askotako pilota-jokoak praktikatu izan dituzte. Hala ere, ez da XIX. mendera arte izango non kautxuaren asmakuntzarekin batera pilotak bizitasuna hartu eta, ondorioz, pareta jotzean pilota bote eginez itzultzea; horrelaxe jaio zen, bada, zeharkako jokoak. Eskupilotaren aurrekariak ezagutzen ba, gaur egunera jauzia egin dezakegu.

1929a izango da kirol honen ezarpenerako lehen urrats erabakigarria eman zen urtea, Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioa (FIPV) sortu zenean. Harrez geroztik handia izan da pilotaren garapenean egindako lana. Alabaina, Euskadiko Euskal Pilota Federazioak oraindik bete ez duen gurari bat du, hau da, FIPVen eskubide osoko kide gisa parte hartzea eta nazio artean Euskadiko Selekzioarekin lehiatzea.

### ARABAKO PILOTA HARROBIA

Arabako Euskal Pilota Elkarteak 1941. urtean sortu zen Gasteizen eskupilotaren inguruan antolamendua sustatzeko asmoz. Arabako Euskal Pilota

Elkarteak 3 mailatako txapelketak antolatzen ditu denboraldian zehar, eskolarrak, federatuak eta afizionatuei dagozkienak hain zuzen ere. Mendizorrotzan kokatu elkarteak, 4 dira aurrera eramai daitezkeen pilota modalitate ezberdinak: Plaza Irekiko Frontoia, Trinketea, Ezker Paretako Frontoi laburra (36 m) eta Ezker Paretako Frontoi luzea (54 m), zehatz-mehatz. Kategoria bakoitzaren barnean urtean barrena hainbat lehiaketa desberdin jotzen dira kirolaren eta pilotarien erakustaldira. Hauek dira maila bakoitzeko txapelketa nagusiak:

Eskolarretan > Arabako Lurraldeko Eskolarteko Txapelketa eta Vital Kutxa Promozioko (IX.) Txapelketa.

Federatuetan > Arabako Lurraldeko (LXXIII.) Txapelketa, Arabako (IX.) Irekia, San Prudentzioko Trinkete Txapelketa, Arabako Herriarteko (XXXVI.) Txapelketa, Vital Kutxa 4 1/2ko (XI.) Txapelketa, Andra Mari Zuriaren (XI.) Txapelketa eta Estadio Fundazioaren (XI.) Pala Txapelketa.

Afizionatuetan > Gomazko Paleta (VII.) Txapelketa.

&gt;&gt;&gt; gaztetxoak ikusmiran

&gt; aratz castresana, pilotari gasteiztarra

# "Nire ametsa profesionaletara iristea da"

Aratz Castresanak 15 urte ditu eta gaztea bada ere bere esku artean ditu jada bere mailan, gaztetxoena, izan ditzakeen bi altxorrik preziatuena: eskuz banakako 4 1/2 ko txapelketa izatea, eta Andra Mari Zuriaren eskuz banakako torneoan jokaturako txapela bereganatu izana. Hemendik aurrerakoa, garaipenez betetako urtea atzean utzita, etorkizunari pilotan jolasteko ilusioa eskaintzen dio Aratzek.

## Noiz hasi zinen eskupilotan jolasten?

Orain dela sei urte gutxi gorabehera. Frogatzearen apuntatu nintzen, gustuko nuela konturatu nintzen eta ondo ematen niola ikusi nuen.

## Zer entrenamendu egin ohi duzu?

Astean bitan entrenatzen dut, bai frontoian pilotari ematen bai arlo fisikoa lantzen.

## Zein izan zen 4 1/2ko Txapelketara iristeko egindako bidea?

Trinkete txapelketa irabazi genuen nire bikoteak eta biok eta ondoren 4 1/2rako entrenatzen hasi nintzen. Oro har txapelketa ona izan zen jolastu nuena eta txapela eramatea lortu nuen azkenean. Andra Mari Zuriaren txapelketan, berriz, Zaramagako kide batekin lortu nuen garaipena, Castresana-Mendinueta Chasco-Perezen aurka, 22-15eko emaitzarekin amaituz.

## Zein da ikusleen jarrera?

Txapelketa arruntetara ez da jende gehiegi joaten, baina finalerako familia eta lagunak hurbiltzen dira. Batzuetan urduritasuna eta presioa nabaritzen da jokoan, baina familiaren babesa hor izaten da beti.

## Zein da pilota munduan lortu nahi zenukeena?

## Profesionaletara heltzea.

Zaila da, baina posible, ezinezkorik ez dagoelako. Askok jokatu behar da eta ondo, eta entrenatzen jarraitu betiere.

## Nola ikusten duzu Gasteizen eskupilotan dagoen maila?

Gero eta jokalaririk gehiago dago eta gero eta hobeak dira. Hala ere, Arabako maila Gipuzkoa zein Nafarroarekin alderatuz gero, kaxkarragoa da, han zaletasuna ere handiagoa delako.

## Zein da Txukun Lakua klubaren egoera?

Une honetan frontoi berri bat egiteko proiektua dago auzoan eta ilusioz itxaroten dugu egun hau.

## Zein sentipen etorri zitzaizkizun txapelak lortu zenituenean?

Emozio ikaragarria izan zen niretzat. 4 1/2a irabaztean izugarritzko poztasuna hartu nuen. Eta Andra Mari Zuriaren txapelketa lehenengo aldiz irabazten genuen!•

Jaioteguna: 1990-1-3

Jaioterria: Gasteiz

Zaletasunak: Pilota betiere, baina baita beste kirolak praktikatzeko ere. Bizikletaz ibiltzea adibidez asko gustatzen zaio Aratz, baita futboleko aritzea ere.

Pilotaririk gustukoena: Aimar Olaizola, dudarik gabe.

Bere kluba: Txukun Lakua Pilota.

Maila: Federatua

Mementoko ametsa: Profesionaletara heldu eta Irujoren kontra jokatzeko.



[arg.: karios fáz. de bectono]

# Aguraingo Harresi aretoa,


Harresi Aretoak 2000. urtean parez pare zabaldu zizkion atea Aguraingo zein Araba osoko kultura maitale orori. Bertan Por-Pol Antzerki Ekoizpenak eta Ture enpresak urtero-urtero ikusleriari hainbat proposamen eskaintzen dizkiote, antzerkia, zinema, dantza zein musika ikuskizunak taularatuz. Aurtengo udazkena ere ekitaldiz blai datorkigu.



[maite lekue]

"Harresi Aretoa proiektu utopiko bezala jaio zen, Lautadako kultura sustatzaile izan nahi zuelako", dio Txortas, Harresi Aretoko programatzaileak. Urteak aurrera joan ahala, haatik, errealitate ezberdinekin topo egin dute ibilitako bidexkan eta gazteria antzokira erakartzea oraindik ere zaila dela diosku.


Euskarari dagokionez, haur antzerkian eremu garrantzitsua bereganatu da, eta helduen antzerkian, aldiz, bestela funtzionatzen da, denetiko antzezlanak eskaintzen saiatzen dira-eta. Harresiko antolatzaileek bizi duten mementoa hausnarketarako garaia dela diote, egindakoa eta egin gabekoa baloratzeko unea, hain zuzen ere. Harresi Aretoak 4.000 bizilagun dituen herrian, batez beste 130-140 ikusle lortzen ditu bere ikuskizunetan. Aguraingo antzokian oinatzat utzi dutenen artean, Carmen Paris, Malevaje, Gari, Mikel Telleria, Bernardo Atxaga, Kiko Veneno eta Albert Pla ditugu, besteak beste.




[arg.: harresi]

# kulturaren bilgune

eujenia ardiaren bidaiak



aretoa



## egitaraua urria- azaroa- abendua

URRIAK 11, IGANDEA, 17:00ETAN

Eujenia Ardiaren Bidaiak

Gar Teatroa (Haur antzerkia euskaraz)

URRIAK 16, OSTEGUNA, 20:00ETAN

Otehitzari biraka

Kukai-Tanttakaren elkarlana (antzerkia eta dantza)

URRIAK 29, LARUNBATA, 20:00ETAN

Fran Lasuen & Eguen Banda

'Denbora' diskoarekin

AZAROAK 12, LARUNBATA, 20:00ETAN

Nasdrovia Chejov

Vaiven Producciones-en esku (antzerkia)

AZAROAK 13, IGANDEA, 17:00ETAN

Nadarín

Tropicallito Titereen esku (haur antzerkia)

AZAROAK 26, LARUNBATA, 20:00ETAN

Iñaki Arakistain Quintet

(musika)

ABENDUAK 3, IGANDEA, 20:00ETAN

El esplendor del tango: de Gardel a Piazzola

(musika)

ABENDUAK 10, LARUNBATA, 20:00ETAN

'Cloun Dei'

Meridional Antzerki Taldea (antzerkia)

ABENDUAK 11, IGANDEA, 17:00ETAN

'Robin eta Hood'

(haur antzerkia euskaraz)

Harresi

## 'mugarik gabe' zinema zikloa >

URRIAK 20, OSTEGUNA, 20:30ETAN

'La manipulación genética'. Zelanda Berria

'Wichi'. Argentina

'Con toda la fuerza del estado'. Mexiko

URRIAK 21, OSTIRALA, 22:30ETAN

'Unidos venceremos', 'Sembrando futuro', 'La tierra es nuestra esperanza, la resistencia al plan puebla Panamá' eta 'Palabras zapatistas contra la injusticia'. Mexiko

URRIAK 22, LARUNBATA, 19:30ETAN

'Ipayé, medicina tradicional Guaraní', 'Para seguir viviendo', 'Tarpurispa, sembrando', 'Arte y cultura Guaraní'. Bolivia

URRIAK 22, LARUNBATA, 22:30ETAN

'Venciendo el miedo'. Bolivia

'La vida de la mujer en resistencia'. Mexiko

'La lucha del agua'. Mexiko

'Prodes en voz de los campesinos'. Mexiko

URRIAK 23, IGANDEA, 19:30ETAN

'Una muerte en Sión'. Peru eta EEBB

'En nombre de nuestra coca'. Bolivia

'Fusil metralla el pueblo no se calla'. Bolivia

cd-ak

## 'dana' mikel urdangarin

2005-iraila / elkar

Lan hurbila, beroa eta ausarta, non, orain arteko esperientzia nahiz talde profesional baten konplizitatea lagun, inoiz baino emankorrago eta indartsuago ageri zaigun. 'Dana' bere karrera zein pertsonarentzat erronka berria dakarren lan gogotsua dugu, aurrerantza emandako urrats ausarta eta erabakigarria. Disko dotorea baino areago, etorkizuneko haize freskoari zabaltzen dion leiho itxaropentsua da. Xehetasunez beteriko emaitza orekatu, oparoa eta erakargarria.



## gaiteros de elciego & friends

2005

Juan Carlos Gomez (gaita lehena), Juantxu Gomez (gaita bigarrena) Juanma Saez (tronboia), Joseba K. Perez de Heredia (bonbardinoa) eta Jonko Sanchez (tuba) musikariek osatzen dute 'Gaiteros de Elciego & Friends' taldea. Gaiteroak taldearen muina izanik taldeak '¿Y por qué no?' izeneko bere lehen diskoa kaleratu berri du, musika tresna ezberdinen soinua eta dultzainena uztartuz.

Helburu zehatza zeukala sortu zuten bost lagun hauek taldea 2000. urtearen amaieran: Gasteizko eta Eltziegoko kaleetan zehar zenbait gabon kanta eskaintzea, alegia. "Horretarako 5 lagun elkartu ginen (hortik izena) --azaldu du Joseba Perez de Herediak-. Gabon kantak prestatzerakoan konturatu ginen interesgarria izan zitekeela, batetik, gabon kantak ahaztu gabe bestelako estilo eta erritmoetako abestiak prestatzea, eta, bestetik, taldea sendotzea tuba jotzen zuen seigarren partaidea sartuz; eta udarako prest geneukan erreperitorio berria, arin-arin, fandango, pasodoble, bolero, swing-a eta bestelako erritmoak landuz".

Beraz, denborarekin, hasierako helburu sinple eta zehatz hura aldatuz joan da, eta gaur egun ordea honela definitzen du taldeak bere zeregina: "Orain arte ohikoak izan ez diren erritmoetan, gaitaren soinua metalekin eta perkusioarekin uztartzea, ahal den neurrian gure instrumentuari kalitatezko jautzia emateko aukera eskainiz".

Euskal folkloreaken musika tradizionaleko nahiz berezko kantak entzuteko Gaiteros de Elciego & Friends taldeak honako gertuko emankizunak eskainiko ditu: Urriaren 29an Donibane Garazin eta Abenduaren 10ean Araian. Informazio gehiago: [www.gaiteroselciego.com](http://www.gaiteroselciego.com)



## Otsoa (eta 2)

[txabi arnal gil]

Otso gizajoa, zergatik jarraitzen duzu ipuin-etako gaizkileen *Top One*-a betetzen? Etxabereek arriskuan darraite, egia. Hala ere, gaur egun ez zara zu horien mehatxua, baizik eta *ero* bilakatzen dituzten horiek. Otso gaixoa, zeu bai zaudela arriskuan! Desagertzeko arriskuan, desagertzeko zorian, desagertzeaz. Ez al da iritsi gaiztoaren papera beste edonori emateko unea? Neronek badaukat lan hori betetzeko hautagai asko, gehiegi tamalez, eta ez dira piztiak inondik inora ere. Horixe da!! Bila ditzagun mende berri honen "otsoak". Dotore jantzita aurkituko ditugu seguru asko. Belarriak, letaginak eta buztana ongi baino hobeto gordeta. Otso zoritxarrekoa! Gaur ahal dudana neurrian babestu nahi zaitut, denok, onartzen ez dugun arren, otso bat baitaramagu geure erraietan, denok otsoak garelako. Beraz, artikulua hau irakurtzen ari zareten guztioi proposamen bat luzatu nahi dizuet. Eskuratu eta, jakina, irakurri otsoa protagonista duten bi ipuin hauek: Livier Douzu-ren *LOBO* eta Emile Jadoulen *¡Que viene el lobo!*, edozein gertaeratan iritzi guztiak entzun eta ikuspegi ezberdinak ezagutu behar ditugulako.



Utz diezaigun otsoari azalpenak ematen. Utz diezaigun otsoari bere burua babesten. Zalduondo herrian aspalditxo egin zuten honen gaineko gogoeta, eta harrez geroztik Markitosek pairatu behar izaten ditu biztanleen irainak eta haserreak. Markitos gizajoa!•

zinea

## Obaba

Iraupena: 107 min. Urtea: 2005 Zuzendaria: Montxo Armendariz Antzezleak: Barbara Lennie, Juan Diego Botto, Pilar Lopez de Ayala, Eduard Fernandez, Peter Lohmeyer

Obabako lurretara doa Lurdes, 25 urte inguruko gaztea. Bere gauzen artean bideo kamera txiki bat darama. Obabako errealitatea harrapatu nahi du, hango mundua, hango jendea. Obaba ez da, ordea, berak uste zuena, eta berehala jakingo du bertakoak iraganari atxikita bizi direla, eta ezin dutela -ez dutela nahi- lotura hori hautsi. Grina txarrak eragiten dituzte bizitza horiek, eta baita gogorkeria edo maitemina ere. Halaxe maistra gaztearengan, beti bakarrik Obabako kaleetan; halaxe krema koloreko paperean idatzitako gutunak jasotzen dituen Esteban nerabearengan. Den-dena gogoan, Lurdesek bizitza guztien puzzlea osatu nahi du, eta bere helburua lortu hartara: bideo kamerarekin errealitatea harrapatu. Ezinezkoa zaio, ordea. Zerbaitek alde egiten dio beti, ezin du guztia ulertu. Obabako muskerren jokaera, esate baterako. Muskerren misterioa ezin baitu inork argitu, ezta Lurdesek bere kamerarekin ere.



[erredakzioa]

### ■ euskara ofiziala espainia osoan

erabili.com-en irakurri bezala, espainia osoan euskara, katalana eta galegoa ofizialak izan daitezen lege proposamena aurkeztu zuen eskuerra republicana de catalunya alderdiak (erc) espainiako diputatu kongresuan. kongresuaren mahaiak luzamendua eman zion erc alderdiak aurkeztutako proposamenaren kalifikazioa egiteari. astebete beranduago (2005-09-20an), diputatu kongresuaren mahaiak tramitera onartu du.

### ■ oreka tx, mongolian

harkaitz martinez eta igor otxoagak osaturiko txalaparta bikotea, mongolian izan ziren irailean. bertan 'world and melody folk festival' nazioarteko jaialdi ospetsuan parte hartzen izan dira; hau ulaam baatar-etik 65 kilometrora kokatuta dagoan gorhi-terelj national park zoragarrian egiten da. bidaia honetarako, txalapartaz gain, oreka tx-ek makila bereziak ekoiztu dituzte, kolpe eginda zaldiaren arrapaladaren soinua imitatzen duten hodiak. honela, mongoliar kultur musikalera hurbiltzen dira; abere hau oso loturik dago kultura honekin eta berez ibiltaria den herrialde honen sinboloa da.



### ■ 'eskutik euskara': animatu lagun bat euskara ikastera!

'eskutik euskara' kanpaina abian jarri du kontseiluak euskaldunek eta euskara ikasten ari direnek lagun edo senideren bat euskara ikastera animatzeko konpromisoa har dezaten. "euskaldunen eta euskara ikasleen eskura jarri ditugu izen-emate txartelak lagun edo senide baten datuak apuntatzeko eta euskaltegian uzteko", argitu zuen kontseiluko ekintza planeko arduradunak, mikel balentziagak.

### eskutik euskara



### ■ lauaxeta poeta eta idazlearen mendeurrena

estepan urkiaga basaras, lauaxetaren mendeurrena ospatzen ari da aurtten. laukizen sortu eta gasteizen fusilatu zuten, santa isabel hilerriko atzeko paretan. aurtengo ekainean, hil zuten egunean, bertan egin zitzaion omenaldi bat, honako esaldia dakarren plaka eraildako horman paratuz: "dana emon behar joko maite dan askatasunari. gure poeta eta idazlea hemen fusilatu zuten, 1937ko ekainaren 25ean".

### ■ k belaunaldia, gaztetxulo hilabetekariaren iraileko alean

"euskal rockak aldaketa garaiak bizi ditu. errobi, hertzainak, rip, zarama, itoiz, kortatu eta abar fosil bilakatu ziren aspaldi, eta haien ondorengoak, su ta gar, negu gorriak, kashbad... dinosaurio bihurtu dira jada. gaur egun talde berrien inbasioa bizitzen ari gara euskal rockean: k belaunaldia heldu da", horietako batzuk: kauta, keike, kerobia, ken zazpi, kokein, kuraia, mak...

### ■ euskararen jatorria. euskara mediterraneoko hizkuntza?

bitxia da kike amonarrizek 2005eko uztailaren 31ko argia-n idatzi artikulua. bertan euskararen jatorriaren inguruko ikerketa bitxien berri ematen digu, era honetan egituratua: "atlanteen ondorengoak", "anibalen desertore koldarren ondorengoak", "falta zitzaiguna: estralurtarrak tartean", "mahasti herria", "mallorca euskalduna vasco-iberismoaren bidetik", "egiptoko hieroglifikoak euskaraz idatzita", eta azkenik, "ekarpen zientifikoagoak". merezi du artikuluari begiratu bat ematea.



### ■ www.euskosare.org

euskosare eusko ikaskuntzaren ekimen bat da eta euskal komunitate globalaren baitan komunikazioa eta lankidetzaren areagotzea du xedea. euskosare-ren webgunea ekimen horri eusten dion plataforma da, topagune birtual bat euskal munduko pertsona eta erakundeentzat eta euskaldunen laguntzat. hala, euskosare zenbait komunitate birtualez horniturik ateratzen da internetera. komunitateen kopurua azkar haztea da asmoa. gainera, albisteak zein bestelako edukiak ere eskaintzen ditu, diasporaren eskariei eta euskal munduaren barneko informazio eta lankidetzaren premiei erantzutearren: internet bidezko ikastaroak, abizenei buruzko informazioa, euskara eta kulturari buruzko baliabideak, ekonomia eta hezkuntza alorreko informazioa, datuak eta informazioa euskal herriko bizitzaz eta turismoaz, nazionalitate bikoitzari buruzko informazioa eta beste. aipamen berezia merezi du diasporako euskal erakunde guztien datu baseak, datuak guztiz eguneratuz eskaintzen dituen. euskosare zabalik dago parte hartu nahiko duten pertsonen eta elkarteien.



### ■ euskal gazte- eta haur-literaturaren antologiak

xabier etxaniz erlek bi helburu nagusirekin osatu ditu euskal haur-literaturaren eta gazte-literaturaren bi antologia hauek; batetik, euskal haur- eta gazte-literatura modernoaren egoera erakutsi nahi du, gaurko egile adierazgarrienak eta horien obren laginak ezagutaraziz. eta bestetik, bertan agertzen diren idazlanen zatiak irakurrita, liburuak osorik irakurtzeko gonbita luzatu nahi dio irakurleari, eta egileen gainerako lanak ezagutzera animatu ere bai. gazte-literaturaren antologian 23 idazle eta 43 libururen zatiak agertzen dira. gainera, egile bakoitzaren berri ematen du, haren bibliografia eta biografia txiki baten bidez. haur-literaturaren antologian 27 idazle eta 56 libururen zatiak agertzen dira, eta hemen ere egile bakoitzaren bibliografia eta biografia labur bat datoz. marrazkilarien lana ere jaso nahi izan du xabier etxaniz erlek bi antologia hauetan. aipagarriada marrazkilariak azken urteotan egin duten lana; ilustrazioa euskal herrian bilakaeraz sendoa izan du, eta euskal marrazkilariak, idazleak bezala, kalitate handia lortu dute.



### ■ arabako astialdi foroa

astialdi hezitzaile talde, federazio eta eskolaz osatu plataforma da, eta arabako astialdiaren alorrean dauden errealitate eta beharrei erantzuna emateko sortutako hausnarketa eta lanerako foroa dugu. honako taldeek osatzen dute foroa: atsedeen taldeak; sansomendi-ali lagun taldea; euskal herriko eskautak araba; ekhi aisialdi taldea; arabako eskaut laikoak; arduradun eskola; eta atsedeen eskola. informazio gehiago aipaturiko edozein taldetan.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO KONGRESUA



[arg.: karlos fdz. de betoño]

Emakumeen aurkako indarkeriari buruz hausnarketa ahalbidetu, prebentzioa bultzatu eta erakunde zein gizarte eragileen esku hartzea hobetzeko proposamenak jaso. Horixe da urriaren 19tik 21era Gasteizen burutuko den Emakumeen Aurkako Indarkeriari buruzko Kongresuaren xedea.

# Isiltasunaren

[edurne begiristain]

Gaur egun gizartean dagoen giza eskubideen aurkako eraso larrietarikoa dugu emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria. Euskal Herrian ere, tamalez, ohikoa bilakatu da emakumeen kontrako biolentzia. Datuak ikaragarriak dira: aurten bost emakume hil dituzte Euskal Herrian euren bikotekide edota bikotekide ohiek. Iaz 298 sexu askatasunaren aurkako erasoak izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoan...

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko lan handia egin behar da oraindik, eta ezinbestekoa da erakundeen, elkarten eta gizarte eragileen arteko lana eta koordinazioa. Eta hori da, bederen, Gasteizko Europa Gizarte Etxean antolatutako Kongresuak erdietsi nahi duen helburuetako bat. "Gizartean dagoen arazo larri hau nola aurreikusi eta nola aurre egin aztertzea da gure xede nagusia", diosku Zuriñe Elordik, Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuko burua.

Bere aburuz, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko herritarrok oro har inplikatu beharra dago. "Kongresuaren bitartez emakumeen indarkeriaren aurkako borrokaren inguruan hausnartzeko parada eman nahi zaie arduradun politiko, teknikari, talde profesionalei, elkarteei eta hiritarrei". Hain justu ere, hiritarren eta gizarte taldeen parte-

### DATUAK

✓ 5 hildako

Aurten bost emakume hil dituzte Euskal Herrian euren bikotekide edota bikotekide ohiek.

✓ motak

Emakumeen aurkako indarkeria mundu guztian gertatzen den krimena da. Hainbat modutan ematen da: sexu erasoak, erailketak, tratu txarrak, sexu jazarpenak, sexu esplorazioa...

✓ AZAROAK 25

1960. urteko azaroaren 25ean Patria, Minerva eta Maria Teresa Miraval, Dominikar Errepublikakoak, euren senarrak kartzelara bisitatzeraz zihoazela militarrek bidean gelditu, kainaberaldi batera eraman, eta bertan, torturarik gogor eta bihotzgabeena jasan ondoren, hil egin zituzten. Emakume hauen omenez, Kolonbian 1981. urtean Hego Ameriketako Jardunardi Feministetan parte hartu zuen dominikar taldeak, egun hori Emakumeekiko indarkeriariaren kontrako eguna izendatzea proposatu zuen.





# harresia apurtuz

-hartzeak berebiziko garrantzia izango du Kongresuan. Horretarako, Komunikazio programa bat egongo da, eta bertan izena eman duten lagunen ekarpenak lantzeko aukera izango da.

## EGITARAU OPAROA

Kongresuaren atarikoak hilaren 7an bertan hasiko dira. Egun horretan Artium museoak antolatuta, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofiak ekoiztutako *Cárcel de amor. Relatos culturales sobre violencia de género* filma eta bideo programa ikusteko aukera izango da Artiumen bertan. Kongresua abiatu baino egun bat lehenago, berriz, genero-biolentziari buruzko mahaingurua egingo da. Irakasle, zinemagile eta kazetari talde batek parte hartuko du bertan.

Kongresuak iraungo dituen lau eguneko egitaraua, bestalde, oparoa eta osatua izango da: adituen txostenak, mahainguruak, eta lantegiak egongo dira goizetik iluntzera bitartean. Jorratuko diren alorrak ere, ugariak. Besteak beste, honako gaiak landuko dira: emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko lege aldetik eman diren pausoak, erakundeen esku-hartzeak, indarkeria prebenitzeko gakoak, tratu txarrak ematen dituenaren ingurukoak, prostituzioa eta emakumeen trafikoa...•

## EGITURAZKO INDARKERIA

NBEk 1993an egindako Giza Eskubideei buruzko Mundu Biltzarrean honela definitu zen genero indarkeria:

“Emakumeen aurkako indarkeria terminoak zera adierazten du: emakumeari min fisiko, sexual edo psikologiko edota sufrimendua eragiten dion edo eragin liezaiokeen edozein indarkeria-ekintza, hau da, jendaurrean edo pribatuan egindako indarkeria erabiltzeko mehatxua, eta bortxa edo askatasunaren kentze arbitrarioa.”

Emakumeen aurkako indarkeriaz edo genero indarkeriaz ari garenean emakumeen giza eskubideen zapalketa larriaz eta, hortaz, gizarte arazo larri batez ere ari gara. Nahiz eta emakumeen aurkako indarkeria hedabideetan maiz ageri ohi den arazoa izan, eta gai pribatua izatetik gizartearen arazo izatera igarotzen ari den, oraindik ere behar-beharrezko gertatzen da salatze eta sentsibilizatzeko kanpainak egitea, bai eta biktimak diren emakumei arreta eta babesa eskaintzeko dauden zerbitzu eta baliabideak ezagutaraztea ere.

Emakumeen aurkako indarkeria mota askotakoa den arren, guztien eragilea gure gizartearen emakumeek bizi duten desberdintasun eta menpekotasun egoera estrukturala da. Hortaz, indarkeriaren muinera joateko, sexuen arteko harreman hierarkikoak gainditu eta parekotasunerantz egingo duten politika eta bitartekoak beharrezkoak dira. Mugimendu feminista eta emakume elkarteek sarritan adierazi dute indarkeriaren aurkako bitarteko eta neurriek prebentzioaren alorrean oinarritu beharko luketela, eta ez soilik laguntza eta salaketaren inguruan.

## Varanasiko istorioak 4.- Rahu

[Jon arretxe]

Antzinatean Jainkoak eta demonioak luzarozan ibili ei ziren borrokan, itsasoan ezkututzen zen nektarra eskuratzearen. Gauza asko atera ziren uretatik borroka luzeak iraun bitartean, besteak beste pozoia, Shiva Jainkoa ia-ia hil zuena dastatzeko tentazioari ez eusteagatik. Hilezintasuna emango zuen nektarrari, oster, kosta egin zitzaion azaltzea. Hamalagarraren gauza izan zen, azkena, eta berori eskuratzeko Jainkoak ibili ziren bizkorrago.



Ilara eratu zuten garaileek, pozik, eta Vishnuren aurretik pasatzen hasi ziren banan-banan, nork bere dosia irensteko irrikaz.

Rahu demonio azkarra, ordea, ustekabean sartu zen Jainkoen ilaran, mozorroturik, eta bere txanda heldutakoan nektarretik edaten hasi zen.

Atoan ohartu zen Vishnu trikimailuz eta, bere atzamar inguruko gupzil zorrotza erabiliz, burua ebaki zion Rahuri. Nektar pixka bat demonioaren odolarekin nahastu zen, eta beste pixka bat lurrera jausi.

Hortik sortu omen zen berakatzaren landarea, eragin bikoitza izan dezakeena, Ganga maisuak dioenez: onuragarria, gaitasun mordoa sendatzen laguntzen baitu; eta kaltegarria, nagikeria bezalako ezaugarriak bultzatzen baititu.



Hinduen zodiakoko osagarri funtsezko-etako bat da Rahu, herensuge-burua, ipar poloa, eta bere eragina oso kaltegarria da.

Gangak zera erantzuten dit egunero galdetzen diodanean bota nahi duten tenpluko arazoari buruz, berari gertatzen ari zaizkion zoritxar guztiak Rahuren eraginaren ondorioak direla:

-Egiazko errudunak, egiazko gaizkileak -esan dit-, ez dira pertsonak, ez tenpluaren jabeak, ez gasolindegiko mafiosoak, ez bidali zidaten pistoladuna, Rahu bera baizik. Pertsonak haren tresnak baino ez dira. Eutsi egiten badiot Rahuk nire horoskopon duen eragin kaltegarriak iraun artean, gero dena aldatuko da eta urak beren bidera itzuliko dira.

-Eta bien bitartean zer egingo duzu?

-Bien bitartean, talisman erraldoia eratzen duen tenpluaren berezko botere babesleaz fidatu beharko dut. Berak salbatu nau orain arte heriotzatik, eraikitzailea bera salbatu zuenez, eta bere hormen barruan inork ezer txarrik egiten badit madarikazioa izango du betiko.

Eratu konbentziturik ematen ditu horrelako azalpenak Gangak, egiazko edozein hinduk egingo lukeen bezala. Bizitzan gertatzen diren zoritxarren arrazoia astroen eraginean bilatu behar ei da, edo tantrikoren batek erabilitako magia beltzean, edo izpirituen parte-hartzean, eta ez pertsona arrunten gaiztakerian.

Gainera, ezin da esan Ganga gizon ezjakina edo lar sinesbera denik, edo kanpoko mundua ezagutzen ez duenik edo antzekorik. Izan ere, urte mordoa eman zuen unibertsitateari unibertsitate bere jakituria handituz, Ekialde nahiz Mendebaldean, eta denbora luzean bizi izan zen Indiatik kanpo, non eta Estatu Batuetan. Errealitateari buruzko ikuspegi erabat desberdinak ezagutu eta aztertu zituen, eta azkenean bere aukera egin zuen: antzinako sineskera erdi baztertueta dagoela egia. •

## ERREZETA

### SACHER TARTA MARRUBIEKIN

[diocesan- mendizorrotzako ostalaritza eskola]

#### Osagaiak

- Bizkotxo egiteko
- Gurina 140 g.
- Arrautzak 140 g.
- Txokolate beltza 180 g.
- Zuringoak 200 g.
- Azukrea 140 g.
- Irina 60 g.
- Almendra txikitua 140 g.
- Legamia kimikoa 5 g.
- Betegarria egiteko
- Marrubiak
- Marrubi mermelada



#### Lanketa prozesua.

Txokolate beltza mikrouhin labean urtuko dugu, erre gabe betiere, eta bigundutako gurina gehituko diogu poliki-poliki, hagaxka batekin higituz. Etengabe eraginez, arrautzak botako ditugu banan-banan.

Arrautzen zuringoak eta azukrea harrotuko ditugu eta aurreko oreari gehituko dizkiogu. Irina, legamia eta almendra nahastuko ditugu gero. Koipeztatutako moldean edo laberako paperarekin estalitakoan egosiko dugu labean 180°C-tan eta 40 minutuz, erabilitako moldearen arabera. Oraindik bero dagoela moldetik aterako dugu eta hozten utziko dugu.

Hoztu ondoren, marrubizko mermeladarekin beteko dugu, bizkotxo bakoitzak nahi duen adina bustiz, eta marrubiak jarrizko dizkiogu gainean, apaintzeko. Marrubi saltsarekin zerbitza dezakegu. •

[alfredo ibarra]



MENDIOLA

ANDRES RANERO  
OROZKO, GASTEIZTARRAK:

**Noizbait Trebiñu euskalduna izan da? Non irakur daiteke zerbait horri buruz?**

Jakina, Andres, euskalduna izan da. Baina "noizbait" ez, ziurrenik XVIII-XIX mendeetan desagerrarazi zuten gure hizkuntza Uda-Trebiñun. Beraz, betidanik XVIII. mendea bitarte arabar eskualde hori euskalduna zen eta, bistan da, berriz ere izanen, haurren matrikulazioa eta bertze lekuko. Hamaika liburu duzu horren frogatzeko, eta nik, baten bat aipatzeagatik, behintzat, honakoak gomendatzen dizkizut: Gerardo Lopez Gereñukoaren ikerketak eta Estibalitz Breñas nahiz Jabi Otsoa de Aldak Geu-ren eskutik karrikaturiko 'Arabako Euskal Hotsak' argigarria. Haiei loturik, hor dira Maria Nieves Sanchez, Jose Antonio Gonzalez Salazar edota Roberto Gonzalez Biñasprekoaren lan bikainak.

HISTORIAZUTABEA

## ALDAIETA (II)

[erlantz urtasun]

Kaixo, irakurle. Oporrak eta gero itzuli gara, beti bezain temati. Aurrekoan Iker Lopez de Aberasturi eta Maite Fernandez Ginearen galderak genituen mahai gainean, Araban V-X mende artean gertatu zenaz hizpide. Bada, eta abutzuan adierazi moduan, lehenik garrantzitsuena: historialariek deituriko "mende ilun" haietan, hots, informazio gutikoetan, gure kultura osasuntsuagoa bizi zen XVIII, XIX, XX. mendeetan baino, azken mende hauek hagitzez "ilunagoak" baitzaizkigu euskaldunoi. Behintzat aspaldikoetan arabarrak euskaraz bizi zirelaket, bon, arabar deitzerik baldin bazegoen, noski.

Aldaietako aztarnategia Gasteiztik hurbil da, Legutio igaro, urtegi ederretan. Bertan erromatar aldia eta geroko gauza ugari agertu zen XX. mendearen amaieran, hain zuzen ere Agustin Azkarate Garai-Olaun arkeologoak maisuki ikertu duena.

Zer zegoen Aldaietako lurrazpian? Hilerrri handia. Gure harridurarako, ehundaka lagun lurperaturik, haien hezurak, apainduriak, tresneria, ontzitegia, armak, sinesmenak eskaini dizkigute, pelikuletako denborazko makina batek egiten omen duenaz bezainbatean.


Eta, kasu, zeren eta antzeko zerbait azaldu berri baita, uda honetan bertan, euskal hiriburuan, Iruñean, horrelako bertze hilerrri bat, antzekoa. Nafarroa Garaikoa "aberatsagoa" dela dirudi,

agian ez testuingurua bere osotasunean hartuz gero, baina bai "fetitxista" izaiten bagara, hau da, zilarra, urrea, eraztunak eta horrelakoak. Logikoa, beharbada euskal hiriburuko eliteaz ari baikara, eta haien hilobietan ere, nolabait, nabaritu behar zen... Halaber, Iruñea eta Aldaieta arteko lotura miatzen ahal da Ekialdeko Lautadan, Sakanan eta Iruñerrian.

Baina zer zegoen, zehatz-mehatz, Aldaietan? Hitzaz hitz, hurrengoan azalpena. Edonola ere, Aldaietan eta Iruñean, ideologia interesak medio, eta zenbaitetan bertzelakorik plaza-ratzen bada ere, dagoena ez da "bisi-godoa", hemengoa baizik. \*



txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera izango duzue. bidali hona zure galdera: [geugaste@grn.es](mailto:geugaste@grn.es)



> gasteizko irakurle kluba 2005/06

> urriaren 6a, osteguna. aurtengo ikasturtearen hitzaldi-aurkezpena.

**Aingeru Epaltza: 'Gure kontu triste hori'.**

dinamizatzailea: iban zaldia lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13) ordua: 20:00

> urriaren 26a, asteazkena

**Harkaitz Cano, Belarraren ahoa, Alberdania 2004.**

dinamizatzailea: iban zaldia lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13) ordua: 20:00 (Harkaitz Cano bertan egongo da)

>> ikasturte osoko egitaraua

• AZAROAREN 24A, OSTEGUNA

Graham Greene, Giza faktorea, Ibaizabal 1997 [1979]

• ABENDUAREN 22A, OSTEGUNA

Miren Agur Meabe, Azalaren kodea, Susa 2000

• URTARRILAREN 26A, OSTEGUNA

C. K. Chesterton, Ostegun izan zen gizona, Ibaizabal 1997 [1908]

• OTSAILAREN 23A, OSTEGUNA

Eider Rodriguez, Eta handik gutxira gaur, Susa 2004

• MARTXOAREN 30A, OSTEGUNA

Primo Levi, Sistema periodikoa, Alberdania 1998 [1975]

• MAIATZAREN 4A, OSTEGUNA

Xabier Montoia, "Hilen bizimoldea" trilogia: Hezur gabeko hilak, Blackout eta Elekrika, Susa 1999 eta 2004.

• MAIATZAREN 25A, OSTEGUNA

Jaroslav Iwaszkiewicz, Wilkoko andereñoak, Alberdania-Elkar 2004 [1933]

• EKAINAREN 29A, OSTEGUNA

Jon Alonso, Agur, Darwin, eta beste arkeologia batzuk, Pamiela, 2001



GASTEIZKO  
IRAKURLE  
KLUBA



> geu gasteiz mendi-taldea (geurekin mendira)

>> 2005-2006 denboraldia

urrian, urtero legez, hasiera emango zaio geu-ren mendi denboraldiari. aurtun, bai lehen ibilaldiak (urrikoak) eta azkenak (ekainekoak), bat egingo dute hilabete horretako ikastolen festarekin: bata, nafarroa oinez-ekin, eta besteak, araba euskaraz-ekin. hori dela eta, inguruko mendiak aukeratu dituzte egun

horietarako, eta ondoren, bertan, altsasun eta armentian egingo dute/duzue egun pasa.

> URRIAREN 16AN

Urbasan, Santa Marina (1030m), eta Nafarroa Oinez, Altsasun

ibilaldi luzea (arratsaldez itzultzekoa) arduraduna: Bego 945 266812

irteera guztiak: Lovaina plazatik / goizeko 9.00etan

>> ikasturte osoko ibilaldiak

> AZAROAREN 20AN

Berretin (1226m)

> ABENDUAREN 18AN

Montemayor (1103m), Escaños

> URTARRILAREN 22AN

Usakoatxa (913m)

> OTSAILAREN 19AN

Bitigarra (1169m)

> MARTXOAREN 19AN

Peñablanca, Trekua (1265m), Leziza (1350m)

> APIRILAREN 9AN

URIETA (1133M)

> MAIATZAREN 21AN

Flor, Umión (1434m)

> EKAINAREN 18AN

Olarizu, Lendiz, Arrieta (1006m), Zaldiaran, eta Araba Euskaraz, Armentian

> iragarkitxoak

Durango di-da enpresak publizitatea saltzeko langileak behar ditu. Esperientzia baloratuko da. Bidali curriculum-ak helbide

hauetara: 243 postakutxa 48200

Durango edo gestioa@di-da.com

> euskararen agenda-ren berripapera

gasteizko udalak abian jarritako 'euskara biziberritzeko plan nagusia, ebpn'ren baitan 'euskararen agenda' deritzan egitasmoa dago. geu elkarte eta geu aldizkaria izango gara egitasmoaren kudeatzaileak. ildo horretan, gasteizko euskarazko ekitaldien berri emango duen berripapera posta elektronikoz jasotzeko aukera egongo da. gero eta sare zabalagoa lortzea da xedea, eta gure harpidedunoi, jakina, 'euskararen agenda' hilez hile bilduko duen buletin hau jasotzeko eskaintza luzatu nahi dizuegu. beraz, horretarako interesa baduzue, bidalguzue zuen maila honako helbidera: [geugaste@grn.es](mailto:geugaste@grn.es)

> kangeuroak

ikasturtearen hasierarekin batera, zerrenda berritzeari ekingo diogu. kangeuro gisa aritu nahi baduzu emaguzu zure izena eta telefonoa, eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / [geugaste@grn.es](mailto:geugaste@grn.es) aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.



[www.geugasteiz.com](http://www.geugasteiz.com) | [geu@geugasteiz.com](mailto:geu@geugasteiz.com) | [geugaste@grn.es](mailto:geugaste@grn.es)

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | **tfnoa. eta faxa:** 945 22 21 53 | **e-mail:** [geugaste@grn.es](mailto:geugaste@grn.es) | [www.geugasteiz.com](http://www.geugasteiz.com) | **zuzendaria:** estitxu breñas glz. de zarate | **aldizkari batzordea:** josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez | **kazetariak:** josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | **argazkiak:** edorta sanz | **bestelako irudiak-bilaketa:** estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | **testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estitxu breñas glz. de zarate | **itzulpenak:** edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri | **maketa:** dalvez-komunikazioa / patirke sanz laguardia | **umorea:** iñigo sarasola | **kolaboratzaileak ale honetan:** jon arretxe, txabi arnal, erlantz urtasun, alfredo ibarra, gazte asanblada, unai gartzia, edu zelaia, joxean sagastizabal eta diocenasas-mendizorrotzako ostalaritza eskola. | **publizitatea:** aldizkari batzordea eta edurne begiristain | **sustapen-harpidetza saila:** edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | **lg:** VI-582/92 | **issn:** 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

## MIKEL URDANGARIN

# "Azken urteetan pilatu zaizkidan emozioak bideratzeko ahalegina da Dana"

Mikel Urdangarinek lan berria dakar Elkar diskoetxearen eskutik. Dana izenpean bilduriko kantuak entzungai izango dira urriaren 12an, estreina jasoko duen Arabako hiriburuan, Azkena aretoan, alegia.

[josune v. de mendizabal]

Bere hitzetan, "badauka probokazio puntu bat Gasteizen egiteak. Bazegoen aukera hemen edo han egiteko. Baina Gasteizen bizi naiz, eta gasteiztar ere banaiz zati batez, eta polita iruditzen zitzaidan hemen aurreneko emanaldia egitea".

**Urtebete isilik egon zara eta horrek indarra eman dizula esan duzu. Disko berri honekin etapa berri bati ekiten diozula esan daiteke ala aurreko lanen jarraipen bat da?**

Beti izaten da jarraipen bat. Zazpigarren lana dut hau, eta, nolabait, bada jarraipen bat. Zerr-nolako fideltasunarekin den

jarraipena beste diskoekin alderatuz? Bada, ez dakit. Hori entzuleak ikusi beharko du. Ni banaiz fidela nire buruarekin. Uste dut nolabaiteko aldaketa bat sumatzen dela, baina ez ni ez izaterainokoa. Ni hortxe nago, beti bezala. Jarraitzen nautenek uste dut nabaritu dutela. Isilune bat hartzen duzunean urtebetekoa nahi gabe ari zara prestatzen, edo probokatzen etapa berri bat. Isilune bat hartzen duzun bakoitzean, isilune berak probokatzen du eszenatoki berri bat. Ez gara harrizkoak, eta nabaritu behar da denbora pasatzen dela onerako zein txarrerako.

**Disko berri honetan letretan bainoago, musikan sumatzen da aldaketa. Zertan?**

Ez dakit aldaketa hori hainbesterainokoa denik. Nabaritzen da batez ere laguntzen nautenek

emandako ukitu berria, hortik datorren sonoritate berria. Hor dago Rafa Ruedaren gitarra, Koldoren teklatuak,... Sonoritatean badago nire ustez berritasun bat, eta segun zein kantatan are gehiago. Baina badauka lehengotik zuen zerbait, alegia, akustikotasun puntu bat oso nabarmena. Hala ere, egia esateko, jada diskoaren perspektiba galduta daukat, entzun ditut kantuak ehunka aldiz... Azkenean-berria bada ere, niretzat nirea da, eta ez da arrotza. Agian, baten bati arraroa egin dakiokena, niretzat oso naturala eta oso nirea da, berezkoa da.

**Dana izenburua zergatik? Lana ateratzeko egindako esfortzuaren adierazle al da?**

Alde batetik, Dana da diskoa ixten duen kantua. Nahita ixten dut kanta horrekin. Esker oneko abestia da. Eta hori da arrazoietako bat diskoari Dana deitzeko. Eta bestetik, Dana da errealitate bat bainoago, gogo bat da. Azken bi urtetan bereziki pilatu zaizkidan gauzak, emozio ezberdinak bideratzeko ahalegin bat, azaltzeko, erakusteko ahalegin bat. Baina, noski, hori



ezezkoa

da, hor baitago errealitatea. Errealak izaten bagara, ezingo nuke ez liburu batean ez disko batean islatu burutik pasatzen zaidana. Barruan biltzen zaizkizun sentipen horiek guztiak islatzea ezezkoa da. Baina 'dana' hitz potoloa da, eta horrekin adierazi nahi dut gogoia, izateko gogoia, komunikatzeko gogoia, baina jakinda ere ezezkoa dela.

**Azkenara gerturatutakoek zertaz gozatzeko parada izango dute?**

Disko berria batez ere, eta baita abesti zahar batzuk ere. Kanta zahar batzuk bertsionatuak eskainiko ditugu. Saiatuko gara gauza polit bat egiten. Ea emanaldi dinamikoaren lortzen dugun. Gauza intentsu bat egin nahi dut, entzulearengan emozio bat probokatu nahiko nuke. Taula gainera aterako garenok onena emango dugula dudarik ez dago. •

**hilaren 12an,  
22.00etan, mikel  
urdangarin  
kontzertuan, azkena  
aretoan**

AZKENA ROCK FESTIVAL

**azkena**

Ibai Villapun, komunikazio-arduraduna:

# "Aurtengo edizioaren kartela lau urteetako onena izan da"

Azkena Rock Festival-en aurtengo edizioaren arrakasta dela-eta, antolatzaileetako batekin harremanetan jarri gara zuzeneko informazioa eman diezagun: Ibai Villapún, Last Tour International enpresa kudeatzailearen komunikazio-arduraduna. Honatx kontatutakoa

"Talde guztiek erakutsitako maila altua nabarmendu behar da. Kartel buruek, Deep Purple eta The Pogues-ek, euren deialdi-gaitasunak bere horretan dirauela frogatu dute. Wilco, Queens Of The Stone Age, Social Distortion eta Gov't Mule-k, egun munduko bandarik onenen artean daudela aldarrikatu dute, eta The Steepwater Band, Rose Hill Drive, Brant Bjork & The Bros, Drive By Truckers edota Electric Six taldeak jaialdiko ezustekoetako batzuk izan dira".

datuak ARF ikusle kopurua > 30.000 lagun kanpin-eremua > 5.000 lagun

[estitxu breñas]

## Zergatik ARF Gasteizen?


Horrela suertatu zen, hasiera batean, jaialdiaren lehen edizioa Gasteizko Azkenan bertan egin zelako eta, ondoren, Udalaren laguntzaz, jaialdia kalera ateratzeko aukera sortu zelako.

## Aurtengo edizioa oso arrakastatsua izan da, ezta? Zein izan da zuen ustez gakoak?

Bai, arrakastatsua izan da. Hiru egunen artean 30.000 pertsona sartu ditugu. Gako asko izan daitezke. Alde batetik, argi dago, aurtengo edizioaren kartela lau urteetako onena izan da. Bestetik, eguraldia lagun izan dugu asteburu osoan zehar. Eta, azkenik, esan dezakegu hilabete askotan zehar, promozio aldetik egin ditugun esfortzuek beren fruitua eman dutela.

## Gasteiztarren parte-hartzea ere altua izan da, ez? Nongo jendea bildu du aurtengo edizioak? Eta aurreko edizioek?

Bai. Oro har esan dezakegu Gasteizek oso harrera ona egin diola jaialdiari. Baina betidanik. Ez bakarrik aurtentz. Hiriak jaialdia bere egin du eta horrek berebiziko garrantzia du jaialdiaren etorkizunari begira. Bestalde, jaialdira leku askotako jendea etorri da: Euskal Herria eta Espainiatik jende gehiena, jakina. Baina baita



The Dwarves taldea Gasteizko emanaldian

[arg.: argazki press]

Frantzia, Portugal, Ingalaterra, Estatu Batuak eta Norvegia, Suedia... bezalako herrialdeetatik.

## "Kartel ona, antolakuntza ona, baina garesti samar ateratzen da...", bertan entzuten zen adierazpena...

Jaialdi honek daukan aurrekontua handiegia da (iaz dirua galdu genuen) eta ez dago jaialdia errentabilizatzerik prezio guztiak (janaria, edaria, sarrerak...) merkeenak badira. Gure politika beti izan da sarrera merkeenak jartzea, baina ezin dezakeguna da prezio guztiak jaitsi eta hurrengo urtean jende guztia jaialdirik gabe uztea. Jendeak kontuan izan behar du ekarri ditugun talde guztiak ikustea ez dela hain merkea munduko inongo lekutan...

## Halako jaialdi bat antolatzeko, lan itzela egin behar da..., honezkero datorren urteko edizioa prestatzen hasiko zineten?

Oraindik ez. Oraindik aurtengo jaialdiko azken gauzak ixten ari gara.

## Zerbait gehitzerik nahi?

Eskerrak eman gasteiztar guztiei, beste urte batez jarrera bikaina eduki dutelako jaialdiarekiko. Hurrengo urtean berriz ikusiko dugu elkar. •

# Gasteizko Alde Zaharra eta PERIa

Normalean, honakoa, bertako historiaren ezagupenera bideraturiko tartea izaten da. Oraingoan, hausnarketarako erabili nahiko nituzke lerrook eta ikuspuntu historiko batetik egungo gai bat landu. Gasteizko Alde Zaharra eta PERI delakoa, alegia.

[Unai Gartzia, Historian lizentziatua]

## GARAPENA AZKAR-AZKAR

Aurretik asentamendu bat egon arren, Goi Erdi Arora eramaten gaituzte gure hiriko lehenengo aztarna arkitektonikoek; egun Landatxo izenez ezagutzen dugun muinoan egurra eta bestelako material iragankorrez altxaturiko etxolak zeuden. Baratza eta animalientzako zelaitxo inguraturiko nekazal etxebizitza txikiok ez zuten Gasteiz izeneko herrixka horrek noizbait izango zuen garrantzia islatzen.

XI. mendearen erdialdean, herrixka osoa inguratzen zuen harresi erraldoia altxatu egin zen, lan honen agindua zeinek burutu zuen zehatz-mehatz ez dakigularik. 1181ean Forua eta Vila titulua eman zizkion Antso Jakituna Nafarroako erregeak hiribilduari. Hemeretzi urte beranduago konkistatu zuen Gaztelak muinoa urte erdi baino gehiago iraun zuen setio baten ostean.

1202an gertaturiko sutearen ondorioz ekin zitzaion asentamenduaren lehenengo zabalkundeari: Hedegile, Zapatari eta Errementari kaleak jaio ziren mendebaldera. Mende erdi beranduago jaio zen bigarren zabalkundea ekialdera, Aitzogile, Margolari eta Judutegi kaleekin. Geroztik, ia zazpiehun urtez, Gasteizek ez zuen muinoa utziko eta hirigintza gotikoaren eredu ia perfektuan garatuko zituen bizipen guztiak.

XVIII. mendearen amaieran hasiko dira lehenengo eraikuntza garrantzitsuak muinoaren kanpoaldean eraikitzen (Plaza Berria adibidez). XIX. mendean, pixkanaka, hiriko oligarkiak hiri zaharra utzi eta hegoaldeko gune berrietara alde egitea erabaki zuen. Hegoaldeko lurren balioak gora egiten zuen heinean (trenbidearen heltzarekin batera bizkortu zen prozesua), Alde Zaharra gune marjinate bihurtzen hasi zen eta guztiz abandonatua geratu zen. Bertan biziko ziren geroztik Gasteizko

gizartearen mailarik "baxuenak".

Hegoaldeko zabalkundera joandako gasteiztar oligarkia, hau da, aristokrazia, aberasturiko burgesia, edo eta militarrek, bizitza publikoa kontzentratzen zuen kale zabal eta garbidun espazio berrian bizi zen. Euren etxe panpoxek behatoki kristaldunak, elektrizitatea, berogailua eta hainbat luxu zituzten. Pobreturiko gune zaharrak aldiz, ez zuen etxeetan XX. mendearen erdialdea ondo sartu arte ura ezagutu eta, elektrizitatea garestiegia suertatzen zitzairen beren etxeen jabe ez ziren biztanleei.

## PERIA

Gasteizko Alde Zaharraren hobekuntzarako mozorropean, Udalak guztiz eraldatu nahi du muino maitatuaren egitura. Biztanleen bizi-kalitatea hobetu behar omen dituzten hainbat azpiegitura saltzen zaizkigu: Etxauriko parkinga, eskailera mekanikoak, zentro komertziala... Baina zein biztanleren nahiei erantzuten zaie?

PPren Udal Gobernuak buru dela, Gasteizko burgesiak bereak egin nahi ditu berriro ere Landatxo inguruak. Hainbat urtetan ahaztua izan duten muinoa interes ekonomiko eta komertzialekin esplotatu nahi dute orain. Kanpoko jendea erakarri behar duen gune komertzial handia sortu nahi dute eta, horri erantzuten diote parkinga edo eta eskailera mekanikoen moduko azpiegiturak. Kurioso da, eskaileren kasuan, ailegarratasun arrazoiak aipatzea, ia Alde Zaharreko etxe gehienek igogailurik ez dutenean eta eskailerak erabiltzaile nagusi asko duen osasun zentrori iristen ez direnean.

Helburu komertzial-ekonomikoen itsututa, PERI delakoak erabat alderatzen ditu auzoaren behar sozialak (etorkinen

kontzentrazioa, hiriko populaziorik zaharkitu eta pobreenetarikoa, etxe zaharren gabeziak eta abar).

Guri dagokigun ikuspuntu historikotik, txalogarriak dira Katedrala edo-eta harresiaren berreskuratze proiektuak baina, hauek ezin bideragarriak dira jendearen gainera pasatzen badira. Jendeari informazioa eman behar zaio eta gainera, bere iritzia kontuan izan behar da. Orain artekoan, noski, Udalak ez ditu bata zein bestea egin.

Populazioaren orekatzeaz hitz egiten digu PERIAK, hau da, auzora eskuraketa gaitasun handiagoko duen jendea erakartzea. Eta zer egin behar dute gustuko ez dituzten gaur egungo hainbat biztanle eta erabiltzaileekin? Garbitu noski: Hainbat urtetan modu eredugarrian auzoari alternatiba kulturala zein aisialdikoa eman dion Gaztetxea desagerrarazi; mundu globalizatu automatata batean Gasteizen euskal kulturaren "babesle" izan diren tabernen itxiera eta, gustu hobeko kafetegi eta hoteltxoen zabalera; mediorik gabeko biztanleen kanporatzea...

Alde Zaharrak PERI bat behar du baina, auzo berezi honen behar sozial, kultural eta historikoei erantzuten diena. Ezin onar daiteke interes ekonomikoei erantzuten dien jendearen partehartze gabeko plan bat.●





ES SARASOLA





**Zure denda erotikoa**

**SEX**

Sexua euskaraz bizi

**PITILIN GORRI**

GASTEIZ  
Tren geltokiaren ondoan  
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA  
OIAZTUN

Obren egite eta zuzentzea

**ALTUNA Estudioa**

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"  
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ  
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilo: 639 81 51 30

**MIKO**

Izozkiak

bar • restaurante  
**A**  
albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ  
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

**IZARRA TABERNA - JATETXEA**

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

**XIXILU JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2  
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

**UZTINTZA**  
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA  
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (KORRERIA), 120  
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**geugasteiz.com**

**BAR KLAKÉ**

KUTXA, 2  
TFNO. 143883

GASTEIZ

**ARANBIZKARRA**

**ZURE AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16  
Tfnoa.: 945 28 28 39  
01002 Gasteiz

eguneko menua

**DIBUtec**

Paper Berretziak  
Arte Ederretarako Materialak  
Ink Jet original eta birziklatuak  
Bulego Materialak  
Enkoadernazioak  
Plastifikazioak  
Kopiak  
Komiseten Estampaketak

**Jazkarprint**  
Inprimatze / Inprimategia  
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOAK • Landazuri, 7 • 945 23 30 01 • GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

**EGUR**

Zureko Teilatuen Muntaiak Garabiarekin eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.  
Goian Poligonoa, Legutiano  
01171 Araba  
Tel.: 627 417 747  
Faxa: 945 465 921  
montajesegur@eushalnet.net

**Xabier**  
taberna

musika ona  
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

**Uetzal**

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artxoa) Tfnoa: 945 25 03 52

**GORETTI**

**ILEAPAINDEGIA**

Hedegile kalea (KORRE), 14  
(San Migeleko pasabidea)  
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

**E4**

eusko alkartasuna

**Euskeraz Araban BAI**

www.euskoalkartasuna.org  
c/ san prudencio 3  
gasteiz-erdialdea

**GA**

Gazte Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org  
c/ vicente manterola z/g  
zaramaga

**Argazki - Estudioa**

**Erramun**

Heracio Fournier, 23  
Tfnoa: 13 71 02 01006

Askatasun kalea, 5  
Tfnoa: 26 19 91 01004

**sartu**

Zure arropa eta oinetakoak

www.sartudenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

**ESTRAL TABERNA**

Eguneroko, asteleneroko eta osteleneroko

**JANTOKI BEGETARIANOAK**

SAN FRANCISCO XABIERREKALEAN KANTOIA, 4  
01001 - GASTEIZ  
TEL: 945 27 65 93

**TXUKUNA**

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:  
bainu-batak, oihalak,  
sukaldeko zapiak,  
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

**HEGOALDE**  
Euskaltegia

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea  
Tfnoa 945 28 41 96  
01003 GASTEIZ

## GASTEIZ HIRIA VI. HERRI LASTERKETA

Azken urteetan bezala, BAGAREK eta BERRIA egunkariak Gasteiz Hiria VI. herri lasterketa antolatu dute. Urriaren 16an burutuko da eta 10 kilometroz Gasteizko kaleak zeharkatuko ditu euskara modu aktiboan bultzatuz. Izena eman daiteke Gasteiz Kirolak, Kirolak Zubiaren eta Euskadiko Kutxan (Dato k/); gainera parte hartzaileen artean zozketa ugari egongo dira. Horretaz gain, UPV-EHUREKIN sinatutako akordio bati esker, antolakuntzan laguntzen duten unibertsitateko ikasleei kreditu bana emango zaie.

**GASTEIZ HIRIA VI. HERRI LASTERKETA**



**berria**  
www.berria.info  
**2005/10/16**  
**Dato kalean 11:00etan**  
**10 km**

Euzko Aurrez Euzkoan  
 Izena emateko egutia  
 Urriaren 20etik  
 Urriaren 30etik  
 Izena emateko tokia  
 Gasteiz Hiria (G. Alava) 1  
 Zubiaurre bidea (Euzko 2  
 Euskadiko Kutxa (Dato)

ANTOLATZAILA: **Bagare**

## EUSKHARAN-EN ESKAINTZA

Euskharan elkarteak egitarau oparoa antolatu du ikasturte honetarako. Aurten indar bereziak jarri dituzte 'Aisia eta astialdiko begiralea' ikastaroan, Urtxintxa eskolarekin elkarlanean antolaturikoa, eta Gasteizko Udalak abian jarritako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan, "etorkizunari begira halako programa batek duen garrantziagatik", Guillermo Perea koordinatzaileak esan bezala. Hortik lan-poltsa bat sortuko da, eta zalantzarik ez dago halako ikastaroek berebiziko garrantzia dutela euskararen garapenerako. Eskaintza zabal honetaz gain, urtero legez, 3 aste kultural aurreikusita dauzkate: neguan, udaberrian eta udan. Horra hor lantegi eta bestelakoen informazio zehatza:

### Tallerrak euskaraz 2005-2006

**Talleres en euskera**  
Behin-behineko ordutegiak irakaslearekin hitzeginda moldatu daitezkeenak  
Horarios orientativos que se podrán variar después de hablar con el irakasle

	<b>Musika</b>
Panderoa	ASTELEHENA (18:00 - 19:30) <span style="float: right;">Martes 60 €</span>
Txalaparta	OSTIRALA (17:00 - 19:00) <span style="float: right;">Martes 60 €</span>
Trikitixa	ASTEARTEA (17:00 - 19:00) <span style="float: right;">Martes 60 €</span> OSTEGUNA (17:00 - 19:00) <span style="float: right;">Martes 60 €</span>

### Formakuntza Ikastaroak

**Informatika** Martes 90 € (ikusaraz baliatuta)

**Urria - Azaroa - Abendua /2005**

Ofice 2000 - (excel - acces)	ASTEAKZENA (19:30 - 21:30)
INTERNET - Oinarrituko informatika (Windows 98) Naligazioa. Posta elektronikoa...	OSTIRALA (17:30 - 19:30)

**Aisia eta astialdiko begiralea**

Adultos - Curso monitorés tiempo libre

Eguna/ordua: ASTELEHENA (16:00 - 20:00)  
Iraupena: 204 ordu (Urtxintxa Malatzera)  
- 120 ordu praktikiko zenbait asteburuetan.

Prezioa: 150 €  
(Aterpeak ez daude prezioan barne)

kursoa hasiera: Urriaren 10ean

**Ettxeko elektrizitate** Martes 60 €

ASTEAKZENETAN (18:00 - 20:00)

**"Neure kasa" berdintasunerako ikastaroak**

Adultos - Electricidad - cursos para la igualdad

**Bertsolaritza** Martes 60 €

LARUNBATA (12:00 - 13:30)

Haurrak: Surtetik 12 urtera Niños: de 8 a 12 años

**Bertoaren saltsan** GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

Adultos - Curso iniciación al bertsolarismo

HELDUENTZAKO JARDUERA ARTISTIKORAKO HASTAPEN IKASTAROA (Praktikoak)

Lekua: Iparralde  
Eguna/ordua: ASTELEHENA (19:30 - 21:30)  
Iraupena: Urriaren 4etik Ekainaren 26ra  
Kuota: 66,37€ /Murrizua 33,18€

Informazio gehiago: Iparralde Gizarte Etxea: 945 16 17 50  
Izen ematea: Irailaren 20tik aurrera eta ikastaroak hasi bitartean

### Zinema

**LARUNBATERO (11:00 - 13:30)**  
Zinema, jokoak, tailerrak...

**Dohanik**

Talleres, juegos y Cine para niños gratuitos todos los sábados de 11:00 a 13:30

### Liburutegia

**2000 liburu bertan kontsultatzeko**  
Liburuak ateratzeko aukera:  
**Karneta** (2 argazki ekarri behariko dituzu)  
-Duanik-  
eta gainera BERRIA, ARGIA, GEU, KILI KILI, ZABAI, IK, eta abar.

**Biblioteka para consultar todo tipo de libros en euskera. - TARDES -**

### Kafe Tertulia

**ASTEAKZENA (18:00 - 19:30)**

Dokumentalak, hitzaldiak, Euskal kantak ikasi era abestu. (mahai baten inguruan kafe edo antzekoa hartuz)  
5.urratsa beharrezkoa da gutxienez.

Dohanik eta irekia

### Bidaiak euskaraz - Mintza praktika

viajes por Euzko Herri praktikando euskera

Euskararen elkarteak Euzko Herriko herri euskaldunetara irteerak antolatzen ditu hiru hilabeteen bitartean.

Autobusa ordaintzeko 15 € eta janaria eramanaz Euzko Herriko herri bat ezagutu eta egun euskaldun bat bihurtzeko.

Irteera gutxienez 9:00etan izango da Las Nievesko Elizatik, (jarduerak gutxienez) eta itzulera 21:00etan.

-Abendua: Iparralde  
-Martxoan: Arantzeta (Nafarroa)  
-Ekainean: Laida (Ondarza) eta Santimamiñe

5. urratsa beharrezkoa da gutxienez

### Mintza-Praktika (berbetan)

Curso para practicar euskera para mayores a partir de 5º nivel

**Helduak (5. urratsetik aurrera)**

- Urria - Azaroa - Abendua 2005

- ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN - aukeratu txanda

10:00etatik 11:30etara	15:30etatik 17:00etara	19:00etatik 20:30etara
---------------------------	---------------------------	---------------------------

Matrikula: 20 € Euskararen kultur Elkartearen kontu korrontean sartu behar dituzte. Euskaradiko kutxa: 3035 0073 51 0730024060  
Interesaturik zaudetarik, fitxa eta kurtzaren justifikantea Amala zentzora eraman.  
KURTSO HASIERA: Urriaren 4a

# azkena

# URRIA 2005

## GASTEIZ

Larunbata 8	<b>PADRE JONY</b>	10-12 €
Asteazkena 12	<b>MIKEL URDANGARIN</b>	10-12 €
Ostirala 14	<b>CYCLE</b>	12-15 €
Larunbata 15	<b>KAOTIKO + NO RELAX</b>	8-10 €
Larunbata 22	<b>LOS RONALDOS</b>	16-18 €
Ostirala 28	<b>BERRI TXARRAK</b>	8-10 €

## www.azkena.com

JULIETTE & THE LICKS. Azkena Rock Festival © Stuart McDonald



## GASTEIZ HIRIA VI. HERRI LASTERKETA



# berria

www.berria.info

## 2005/10/16

**Dato kalean 11:00etan**

## 10 km

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**Kuota**  
Aurrez 6 €  
Egunean 8 €

**Izena emateko epea**  
irailaren 30etik  
urriaren 14ra

**Izena emateko tokia**  
Gasteiz kirolak (G. Alava 1)  
Zubiaurre kirolak (Florida 2)  
Euskadiko Kutxa (Dato)


ANTOLATZAILEA:

**Bagare**  
euskal tokia



Hamarrendun eragiketak lau eragiketekin

- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.



BATUKETAK, KENKETAK, BIDERKETAK, ZATIKETAK, BERREDURAK EDO POTENTZIAK, ZATIKIAK EDO FRAKZIOAK ETA EHUNEKOAK EDO PORTZENTAJEAK

Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.

Argibideak eta eskariak.  
Tel./Faxa:

**945 25 75 14**

**IZARGI**